
2015 MEMORIA

KUDEAKETA PLANA 2016



OSALAN



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



AURKIBIDEA

I. AURKEZPENA	2
1. SARRERA	4
2. 2015eko JARDUEREN MEMORIA	6
3. 2016ko KUDEAKETA PLANA	32
1. 2016ko lan-ildoak	32
a. 2015eko balantzea	
b. Laneko segurtasun eta osasunerako Europako esparrua	
c. Osalanen 2016ko helburuak eta lehentasunak	
d. 2016ko Kudeaketa Planaren egitura	
2. Antolaketa eta baliabideak	42
a. Kudeaketa Planaren diseinua	
b. Kudeaketa Planaren garapena	
c. Baliabideak	
3. Kudeaketa Planaren jarraipena.....	46
a. Jardueren oroitza-txostena	
b. Gizarte-eragileen parte-hartzea	
4. Osalanen 2016ko Kudeaketa Planean jasotako ekintzak	48
ERANSKINAK	60

AURKEZPENA



Izaskun Urien Azpitarte

2015-2020 Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia onartu zenetik urtebete pasa den honetan, euskal gizartearen aurrean aurkezten dugu OSALANen ekarpena bere garapenean, eta baita erakunde honek beregain hartzen duen konpromezua, gogor lanean jarraitzeko lan ingurune osasuntsua lortzeko bizitza osasuntsu baten osagai bezala.

Dokumentu honetan laburtu ditugu OSALANek 2015. urtean izan duen jardueraren memoria eta 2016. urteko aurre ikusita dauden ekimenak, ikusgai eginez erakundearen koherentzia bere ibilbidean eta proiektuaren sendotasuna OSALANek beregain hartu duen xedea eta ikuspegia lortzeko.

Estrategia hedatzeko lanek eta kudeaketa publiko aurreratuko ereduaren ezarpenak markatu dute OSALANen jarduera 2015. urtean, bere bereizgarritasuna irismen zabala izanik, gure lurraldeko sektore, aktibitate eta gizatalde orotara laneko arriskuen prebentzioa iristeko helburuarekin.

Itun berriak sortzea eta daudenak indartzea, ezagutza aplikagarria sortzea eta lan lekuetan presente egotea EAeko langileen segurtasun eta osasun arazo nagusietan eragina izateko, iaz gure buruari ezarri genizkion helburu nagusiak izan ziren eta aurtengo urtean ere helburu hauexei helduko diegu.

Horrela, aurtengo ekitaldirako ardatz eta lan ildo estrategikoeekin lerrokatutako ekimen zabala aurkezten dugu, gure Erakundeak eragina duen segurtasun eta osasun arloan ahalik eta zabalen hedatzeko. Gizartean kontzientziaziorako ezagutza zabaltzea eta bereziki, laneko arriskuen prebentzioaren aktore direnena, eragile publiko eta pribatuen arteko elkarlana, prebentzio ekimenaren kalitatea, ikerketa eta berrikuntza eta lan baldintzen hobekuntza OSALANen lan agendan modu nabarmenean ageri dira.

Ekimenok modu eraginkorrean, zintzoan eta erantzunkizunez aurrera eramateko asmoa daukagu, ezaugarri horiexek baieztatu dute gure erakundea laneko segurtasun eta osasunaren arloko erreferente gisa.



Izaskun Urien Azpitarte
OSALANeko zuzendari nagusia



**LANEKO SEGURTASUN
ETA OSASUNERAKO
EUSKAL ESTRATEGIA**



ESTRATEGIA VASCA
DE SEGURIDAD Y SALUD
EN EL TRABAJO

“

2015-2020 Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia onartu zenetik urtebete pasa den honetan, euskal gizartearen aurrean aurkezten dugu OSALANen ekarpena bere garapenean, eta baita erakunde honek beregain hartzen duen konpromezua, gogor lanean jarraitzeko lan ingurune osasuntsua lortzeko bizitza osasuntsu baten osagai bezala

”



AURKEZPENA

01.

Hurrengo ataletan garatzen den agiriaren xede nagusia dugu, tresna baliagarria izatea Osalanentzat Eusko Jaurlaritzak laneko segurtasun- eta osasun-arloan ezarritako politika publikoak kudeatzeko helburuz, erakundea eginkizun horiek betetzeko sortu baitzen.

2015-2020 aldiko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia lan-eremutzat hartuta, bertan ezarritako helburuak betetzea da erakundearen asmoa eta, horretarako, 2016ko ekitaldiko helburuak zehaztu eta lehentasunak finkatu behar ditu.

Aipatutako estrategia Osalanen jarduera zedarriztatzeko lanabes nagusia izango da tresna horren indarraldiaren barruan, baina esan beharra dago beste alderdi batzuk ere aintzat hartu behar ditugula ekitaldi honetan ekin beharreko erronkei begira.

- Horrela, kontuan hartu behar ditugu erakundeak 2015eko ekitaldian egindako jarduketan emaitzak eta, horregatik, azken ekitaldi horretako jardueren oroitza-txostena eta egindakoen balantzea txertatuko dugu plan honen lehen kapituluan, bi arrazoi direla tarteko:

Alde batetik, gauzatutako jardueretan eskuratu dugun informazioari esker, bertatik bertara ezagut ditzakegulako laneko arriskuen prebentzioaren egoera, bilakaera, beharrianak eta arazoak, lantokietara egindako bisitaldien bidez ez ezik, erakundeak parte hartzen duen foru edo bilgune guztien bitartez ere bai.

Beste alde batetik, erakundeak eta beste eragile batzuek burututako jarduketan eraginkortasunaz jabetzen garelako, eta horrela, doiketak proposatu ahal ditugu garatzen diren estrategia, politika eta ekintzetan, arazoei modu egokian aurre egiteko.



- 2016ko Kudeaketa Planean kontuan hartu beharreko beste alderdi bat dugu Europak laneko segurtasun-eta osasun-arloan ezarritako arau eta jarraibideak, jakinaenez, Euskal Autonomia Erkidegoak horiei men egin behar baitie, bertako errealitatera egokituta. Horregatik, Europako Parlamentuak laneko osasun-eta segurtasun-arloan 2014-2020 aldirako egin duen EBren esparru estrategikoaren berrikuspenak ere –2015eko azaroaren 25eko Ebazpenean (2015/2107(INI)) jasota dago– lekua dauka agiri honen atal batean.
- Azkenik, gogorarazi behar dugu Osalan ahalegin betean dabilela AURRERABIDE kudeaketa publiko aurreratuko eredia ezartzen, eta erakundeak jarduerak garatzen jarraitu beharko duela eremu horren barruan zerbitzuak hobetzeko xedez.

Esandakoek egituratzen dute 2016ko Kudeaketa Plana, ondoko ataletan azalduko denez. Agirian, planean jasotako ekintzak, baliabideak eta ekintzak hedatzeko era azaltzen dira, bai eta planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko modua deskribatzen ere.



2015eko JARDUEREN MEMORIA

2015 MEMORIA • KUDEAKETA PLANA 2016

02.

Osalanek ekitaldian garatutako jarduerak eta ondutako emaitzak aletzen hasi baino lehen, azpimarratu behar dugu 2015. urtea abiapuntua izan dela erakundearentzat, bi ikuspuntutatik hartuta. Alde batetik, aldi berria hasi da laneko segurtasun eta osasunaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia 2015-2020 onartu baita. Hori dela eta, erakundeak erronka berriei ekin behar izan die laneko arriskuen prebentzioaren arloan. Beste alde batetik, Aurrerabide ereduan oinarritutako kudeaketa-era berria ezartzen hasi da Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa publiko aurreratuaren ildoan, herritarrei zerbitzu hobea emateko helburuz.

Hala eta guztiz ere, ez dugu alde batera utzi Osalanen ibilbide sendoa, orain arte emaitza egokiak ondu baititu, egun jorratzen diren arlo gehienetan lehendik ere lanean ari baikinelako. Horren haritik, lehentasunak berrikusi eta lan-ildo berriren bat ezarri da.

Ondoko lerrootan, Osalanek erakundearen 2015eko Kudeaketa Planean ezarritako ardatzetan eta lan-eremuetan gauzatutako ekintzak azaltzen dira, bai eta lortutako emaitzak ere erakundeak finkatu dituen helburu estrategikoak aintzat hartuta.



ARDATZA	OSALANEN HELBURUAK			
1. ARDATZA: LAPen KULTURA	0.1.- Laneko Arriskuen Prebentzioaren kultura sustatzea. 0.2.- Eragileen eta herritarren parte-hartzea erraztea.			
2. ARDATZA: LSOren GAINEKO JAKINTZA SORTZEA ETA ZABALTZEA	0.3.- Informazio-sistema bat baliatzea jakintza sortzeko arriskuen eraginaren, kalteen eta erabilitako neurrien eraginkortasunaren inguruan. 0.4.- Jakintza sortzea kalteak prebenitu eta osasunaren hobekuntza sustatzeko. <table border="1" data-bbox="1090 786 1599 869"> <tr> <td>Ikerketaren bidez</td> </tr> <tr> <td>Prestakuntzaren bidez</td> </tr> </table> 0.5.- Jakintza zabaltzea, enpresetan eta lantokietan erabiltzeko moduan, aholkularitza eta laguntza teknikoa emanda.		Ikerketaren bidez	Prestakuntzaren bidez
Ikerketaren bidez				
Prestakuntzaren bidez				
3. ARDATZA: LAP KUDEATZEA	0.6.- Arriskuak kudeatzea helburu duten LAPen jarduketan kalitatea sustatzea. 0.7.- Laneko baldintzen hobekuntza bultzatzea. 0.8.- LAP kudeaketan txerta dadin bultzatzea.			
4. ARDATZA: HERRI ADMINISTRAZIOAK	0.9.- Antolakunde, administrazio eta beste erakunde batzuekin koordinatzea eta elkarlanean aritzea, aliantza estrategikoak eratuta. 0.10.- Osalanen zerbitzua eta kudeaketa hobetzea.			

Ekintzei buruzko azalpen zehatza honako agiri honen 1. eranskinean jaso da; bertan, ondoan azalduko ditugun emaitzak banakatuko dira.



- 1.- Laneko Arriskuen Prebentzioaren kultura sustatzea
- 2.- Eragileen eta herritarren parte-hartzea erraztea



1. LAN ARRISKUAK PREBENITZEKO KULTURAREN SUSTAPENA

Osalan erakundearen lehenetsunetako bat dugu laneko segurtasun- eta osasun-arloko sentiberatzea egitea eta, pertsonen osasunari berehalako nahiz etorkizuneko kalteak saihesteko helburuz, laneko arriskuen prebentzioaren garrantziaz kontzientziaztea. Erakunde honen iritziz, prebentzioaren inguruko kultura lantzea aurretiaz eta ezinbestean egin beharreko urratsa da, beharrezko jarduketei ekin baino lehen. Hala, Laneko Osasun eta Segurtasunerako Euskal Estrategia 2015-2020 deritzon agirian esan denari jarraiki, behar-beharrezkoa da ekin **nahi izatea**.

Horren ildotik, Osalan erakundeak ere askotariko zabalkunde- eta prestakuntza-jarduerak garatu ditu, jende guztiarengana heltzeko xedez, bereziki, prebentzioan jarduten duten eragileengana.

Hedabideen bidez, gizartea osatzen duten norbanako guztien artean zabaldutako mezuez gain, pertsonaltalde jakinentzako jarduera berariazkoak ere antolatu ohi ditugu, zabalkunde- eta prestakuntza-eskaintza anitza izan dadin ahaleginduta, bide, formatu eta mezuei dagokienez.

1.1 Prebentzioaren kultura haurtzaroan eta gaztezarroan

- Haur eta gazteengana hurbiltzen ahalegintzen gara haientzako bide erakargarrienak erabiltzen, hots, komunikazio-bide digitalak erabiltzen. Horrela, **GAZTEPREBEN** izeneko atala abian jarri dugu Osalanen webgunearen barruan. Atal horretan, adin-tarteen araberrako material didaktikoa aurki daiteke: Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Batxilergoa.

Ekimena **Umeen Gabonetako Parkean** aurkeztu zen eta arrakasta handia izan du.



- Beste alde batetik, lan-merkatuan epe laburrean sartuko diren gazteak sentiberatzeko jarduerak ere egiten ditu Osalanek, besteak beste, ikastetxeetan eta lanbide-heziketako nahiz unibertsitateko ikasleentzat egiten dituenak.

2015eko ekitaldian, Lanbide Heziketako 13 ikastetxetako 325 ikaslek bisitatu dituzte Osalanen instalazioak. Horiez gain, 368 ikaslek informazio-hitzaldietan hartu dute parte **ADI programaren** esparruan. Azken programa hori Fundación de los

Trabajadores de la Siderurgia Integral (FTSI) deritzon erakundearekin elkarlanean garatzen du Osalaneak.

- Azkenik, unibertsitatearen esparruan, **Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko V. OSALAN ikastaroa** antolatu da, EHUko udako unibertsitateak egiten duen ikastaro-eskaintzaren barruan. Ikastaro horretan, laneko biosegurtasuna jorratu zen.

1.2 Prebentzioaren kultura lantokietan

Osalan erakundearen zabalkunde- eta prestakuntza-jarduerak diseinatzen direnean, bereziki kontuan hartzen dira laneko arriskuen prebentzioaren arloan jarduten duten eragileak, hala nola, enpresaburuak, langileak, prebentzio-arloko eskuordeak, prebentzio-erakundeetako teknikariak eta osasun-langileak eta herri-administrazioak.

Aipatutako eragileak xede-taldetzat hartuta, sentiberatze-jarduerak eta jakintza sortzeko ekimenak garatu ditu Osalaneak. Horren haritik, guztiz arrakastatsutzat jotzen dugu **2.465 pertsonak** zuzenean jaso izana erakunde honek zabaldutako edukiak 2015eko ekitaldian antolatutako **20 tailer, jardunaldi eta zabalkunde-ekitaldietan**.

Ekitaldi horiek guztiek plataforma bikaina osatzen dute laneko segurtasun- eta osasun-arloan aurrerapenak egin dituzten enpresek eta erakundeek prebentzio-eremu jakin batzuetako esperientziak eta **jardunbide egokiak** besteekin parteka ditzaten.

Ingurumari horretan, esan behar da ia **400 antolakunde** parte hartu dutela Osalaneak antolatutako jardueretan.

ERANSKINAK Ikusi antolakundeen zerenda 3. eranskinean.

Osalaneak beste ekimen batzuk, hala nola, Barakaldoko BEC erakustazokan egin den **FITMAQb 2015** azoka, eta beste herri-administrazio, erakunde eta enpresa- eta sindikatu-elkarte batzuek eskaintako topaguneak baliatu ditu erakundearen edukiak eta lanak zabaltzeko, aipatutako erakundeek antolatu dituzten ekitaldietan parte hartu duela.

ERANSKINAK

Ikusi datu zehatzak 4. eranskinean.

1.3 Sentiberatze-lana sektore jakin batzuetan

Osalaneak arreta berezia eskaini die jarduera-sektore jakin batzuei erakundeak antolatu dituen zabalkunde- eta prestakuntza-jardueretan, hainbat ezaugarri berezi dituztela eta: arrisku biziak paira ditzaketen erakundeak izateaz gain, ez dira oso harkorrak laneko segurtasun eta osasunari buruzko mezuen aurrean, hein handi batean, prebentzio-azpiegiturarik ez dutelako.

• Norberaren konturako langileak

Norberaren konturako langileen edo langile autonomoen laneko segurtasun eta osasunaren sustapenari ekiteko, erakundeak **hitzarmena sinatu du UPTA-Profesional eta Langile Autonomoen Elkartearekin**. Bi erakundeen arteko lankidetzak dela

Laneko arriskuak prebenitzeko jardunbide egokien gida, txikizkako merkataritza eta ostalaritzarako.



medio, jardunbide egokiei buruzko bi eskuliburu prestatu dira, ondoko arloetan erabiltzeko: Txikizkako merkataritza eta Ostalaritza.

2016ko ekitaldian ere lan ildo horri eutsiko diogu. Hala, aipatutako eskuliburuak aurkeztuko ditugu eta hirugarrena, Garraioaren arlokoa, prestatuko dugu. Horrez gain, atal bat jarriko dugu Osalanen webgunean norberaren konturako langileentzako eduki eta lotura interesgarrien berri emateko.

• Lehen sektorea

Arrantzan, nekazaritzan, abeltzaintzan eta basogintzan dabilten langileak Osalanek antolatzen dituen zabalkunde- eta prestakuntza-jardueren xedetaldea izan dira —eta 2016ko ekitaldian ere xede-talde izaten jarraituko dute—.

Hori dela eta, erakundeak **SINAVAL 2015** azokan parte hartu zuen. Bestalde, **Basogintza laneko arriskuen prebentzioari buruzko jardunaldia antolatu zuen** eta, azkenik, **Itsas eta arrantzaren sektorean, laneko segurtasun eta osasunari buruzko ikastaroaren 1. edizioa antolatu zuen**. Ekitaldi horietan guztietan, Osalanek dena delako sektorearentzat prestatutako tresnak eta prebentzio-gidaliburuak aurkeztu ditu beste erakunde batzuekin elkarlanean, hala nola, AZTI eta BaskEgur erakundeekin.



Aipatutako tresna horietako bat dugu arrantzaren sektoreko laneko arriskuen prebentzio-fitxak: **“GOGORATU / RECUERDA”**. Fitxak galizako laneko segurtasun eta osasunerako erakundeak ISSGAREN laguntzari esker egin dira, “LEMBRA” izeneko fitxen eskubideak laga dizkiolako Osalani GOGORATU fitxak presta ditzan.

GOGORATU Arrantzako laneko arriskuen prebentzio-fitxak.




1.4 Arrisku eta egoera jakinei buruzko kontzientziatzea

Arlo edo sektore jakin batzuk lehenetsi dira Osalanen zabalkunde-ekintzen xede-taldetzat eta, era berean, garrantzi handikotzat jo dugu prebentzio-jardueretan behar besteko sakontasunez jorratu ohi ez diren arrisku eta egoera zehatz batzuk jorratzea.

• Arrisku psikosozialak

Eragin psikosozialei lotutako arriskuez kontzientziatzeko jarduera oso oparoa izan da eta, gainera, hainbat ikuspegitatik heldu diogu, eragileengana eta, oro har, gizartearengana heltzeko ahaleginak eginda, kanal eta formatu anitzak erabiliz.

Horrela, Interneteko atarian, **PSIKOPREBEN** izeneko atala jarri dugu martxan, arrisku psikosozialen eta horien prebentzioaren inguruko jakintza herritar guztiei zabaltzeko helburuz.



Prebentzioari eta gatazkak konpontzeari buruzko protokoloak eta jardunbide egokiak Osalanek antolatutako **tailerren** bitartez landu dira gure erkidegoko hiru lurraldeetan. Tailer horietan, **164 prebentzio-ordezkarik** parte hartu dute.

Beste alde batetik, **Laneko Psikosoziologiari buruzko VI. Jardunaldiak** antolatu dira. Ekitaldi hori erabat finkatuta dago arloan eta ekimen eredarria da. Aurreko ekitaldiko edizioan, 400 lagun inguruk parte hartu zuten.

- **Laneko arriskuen prebentzioa, genero-ikuspegia landuta**

Zabalkundearen eremuan, genero-ikuspegia antolatutako jardueretan txertatzeko beharrezan sentiberatzea izan da Osalanen beste lehentasunetako bat.

Ildo horretan, **amatasunari eta ugalketa-osasunaren** inguruko 2.000 hiruorriko argitaratu eta zabaltzen hasi

gara. 2016an ere hiruorrikoaren zabalkundearekin jarraituko dugu.

Ekimen horretan eta beste zabalkunde-jarduera batzuetan, Osalanek **Emakunderen laguntza** baliatu du. Izan ere, erakundeak lankidetzeta-hitzarmena sinatuta dauka Emakunderekin eta lankidetzaren lehen emaitzak ontzen hasi dira.



Emaitza horien artean, aipatu beharrekoa da Emakunderen Osalan erakundeak langileei emandako **prestakuntza** emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz, eta bestetik, Osalanek Emakunderen langileei emandakoa laneko arriskuen prebentzioaren eta eragile nagusien oinarrizko edukiei buruz, erakunde bakoitzaren erantzukizun-eremuak hobeto ezagutu eta lankidetzan eraginkortasunez aritzeko helburuz.

Erakunde bien arteko lankidetzaren beste jarduerak aipagarri bat dugu Osalanek antolatutako jardunaldia **Emakunderen XII. Berdintasun Foroaren** baitan. Jardunaldi horretan, laneko arriskuen prebentzioaren genero ikuspegia nola txertatu landu da ia-ia 200 lagunek hartu dute parte bertan.

• Osasunaren sustapena laneko ingurunean

Laneko inguruneari lotutako osasunaren sustapena ere Osalanen lan-ildo estrategikoetako bat da 2015-2020 aldian. Ildo horretan, **adikzioen prebentzioa** sustatzea dugu erakundeak lehentasunezkoztat jotzen dituen arloetako bat.

Horretarako, bi **hiruorriko** prestatu dira: haietan, drogen kontsumoari lotutako arriskuez ohartarazten da eta, bestetik, auzi horri nola aurre egin azaltzen da, Adikzioak Prebentzeko Plana ezarrita enpresan. Baliabide horien zabalkundea 2016an egingo da eta, aldi berean, **landa-lana** gauzatuko da mota horretako planek enpresetan zer-nolako hedapena duten jakiteko.

Triptikoak. ENPRESA OSASUNGARRIAK / ENPRESAN MENDEKOTASUNEN PREBENTZIO-RAKO PLANA.



1.5 Argitalpenak

Aurreko atalean aurkeztu ditugun baliabideez gain, aipatu beharra dago Osalanek beste argitalpen batzuk zabaldu dituela 2015eko ekitaldian —guztira, 17—. Horiek guztiak paperezko formatuan zein webgunean jarrita zabaldu dira.

ERANSKINAK

Ikusi argitalpenen zerrenda 5. eranskinean.

Azpitarratu behar da Osalan ahalegin handia egiten ari dela **prestakuntza - eta zabalkunde - eskaintza dibertsifikatzeko**, batez ere, gaian aditu ez diren pertsonen beharrezanean erantzuteko, eduki teknikoegiak zail samarrak izan daitezkeelako halakoentzat eta, horregatik, formatu atseginoak eta lanpostuaren ingurunean erabiltzen errazagoak diren euskarriak lantzen dihardu erakundeak.

Ahalegin horren emaitza garbia dugu, esate baterako, makinaren segurtasunari buruzko horma-irudiak eta arestian aipatu ditugun arrantza-jarduerako arriskuen inguruko GOGORATU fitxak. 2016ko ekitaldian ere ahalegin horri eutsiko diogu eta, gainera, edukiak zabaltzeko beste aukera batzuk landuko ditugu, batik bat, Internet bidezko zabalkundea baliatuta

GOGORATU segurtasuna makinetan.



2. ERAGILEEN PARTE HARTZEA ETA ELKARLANA

Jarraiguzu;



Laneko segurtasun- eta osasun-arloan hainbat eragilek parte hartzen dute eta haietako bakoitzak hainbat interes eta lehentasun dauzka eta, betiere, ez dira errazak uztartzen. Hori dela eta, gure autonomia erkidegoan garatzen diren laneko arriskuen prebentzioan jarduten duten interes-talde guztien arteko elkarrizketa eta parte-hartzea indartzea jarduketa estrategikoa da Osalanentzat.



2.1 Gizartearen parte-hartzea

Osalanen erronka garbia da **Internet** baliatzea administrazioa herritarrengana hurbiltzeko. Horren haritik, erakundea webgunearen diseinua aldatzen ari da erabilerraztasuna hobetzeko eta hainbat mikrogune bertan kokatzeko: Gaztepreben eta Psikopreben atal berriak eta genero-ikuspegiari eta ergonomiari buruz sortuko ditugunak.

Webgune eta sare sozialetako trafiko-datueta oinarriturik, esan dezakegu gero eta erabiltzaile gehiago ditugula eta horien fidelizazioa ere goranzkoa dela. Bestetik, argi dago komunikazio-tresna horiek finkatu direla eragileek eta, oro har, gizarteak parte hartzeko bide moduan.

Webgune eta sare sozialetako trafiko-datueta oinarriturik, esan dezakegu gero eta erabiltzaile gehiago ditugula eta horien fidelizazioa ere goranzkoa dela. Bestetik, argi dago komunikazio-tresna horiek finkatu

direla eragileek eta, oro har, gizarteak parte hartzeko bide moduan.

2.2 Prebentzio-eragileekiko lankidetz

Osalanen bereizgarrietako bat dugu gure autonomia erkidegoko laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzen duten eragileei entzun eta horiei jaramon egiteko prestutasuna, bai eta haiekin elkarlanean aritzeko borondatea lan-ingurunean gerta daitezkeen arriskuak prebenitzea xede duten ekimenetan.

Aurrekoa dela eta, erakundeek sustatutako bilguneetan, hala nola, Osalanen Kontseilu Nagusian eta horren baitan sortutako batzordeetan, edota erakundeak berak bideratzen dituen ekintzen bidez egindako ekitaldietan, bileretan eta topaguneetan, zuzeneko elkarrizketa lantzen du erakundeak **gizarte-eragileekin eta prebentzio-erakunde espezializatuekin** eta, horren ondorioz, denek jakiten dute bakoitza zer garatzen ari den eta zer-nolako arazoak sortzen diren interes erkideko esparruetan.

Bereziki aipatu behar dugu Osalanen eta gizarte-eragileen arteko lankidetz urteko **kudeaketa planak diseinatu eta horien jarraipena egiteko**. Horretarako, xede hori daukan batzordea biltzeko deiak egiten ditu aldiro-aldi erakundeak.

Prebentzio-erakunde espezializatuei dagokienez, erakunde horiek antolatzen dituzten prebentzio-jardueren **kalitatearen** inguruan ardatzu nahi du lankidetz. Ildo horretan, jardueren kalitatea bermatzeko, erakundeak gomendioak, jarraibideak

eta irizpideak eskaintzen ditu; guztiak jasota daude aurrerago zehaztuko diren euskarrietan. Prebentzio-zerbitzuekiko harremana etengabea da, zuzendarien artean zein teknikarien artean, eta jardueren hobekuntza ahalbidetzen da prestakuntzaren bidez eta Osalaren talde tekniko eta sanitarioak landa-lanean ematen dituen gomendioen bidez.

Lan hori nabarmen areagotuko da 2016an, uste baitugu laneko segurtasun- eta osasun-arloko adituen profesionaltasuna eta lan bikaina giltzarria dela arriskuak prebenitzeko.


2.3 Beste administrazio eta herri-erakunde batzuekiko koordinazioa

Ezin baztertuzko lankidetzaren-eremua dugu laneko segurtasun- eta osasun-arloan eskumena duten administrazio eta herri-erakundeek garatu beharrekoa. Erakunde horiek guztiak elkarlanean aritzea eta jarduketa publikoen koherentziari eustea, jarduketa horien xede diren herritarren mesedetan, badira, zalantzarik gabe, Osalaren beste lehentasun batzuk.

Erakundeak jorratu dituen lankidetzaren-eremuak erakunde-maila batzuetan eta garatu dira eta askotariko

proiektuetan islatu dira. Hala, harreman eta jardueren sare horrek laneko arriskuen prebentzioaren arlo guztiak aintzat hartu nahi ditu.

- Eusko Jaurlaritzako beste sail eta erakunde batzuekiko koordinazioari dagokionez, azpimarratu behar da Osalaren eta **Osasun Sailaren** arteko lankidetzaren estua. Izan ere, Osalanez garrantzi handiko proiektuak partekatzen ditu aipatutako sailarekin, besteak beste, laneko historia klinikoaren eredu, prebentzio-zerbitzuen gutxienezko datuen multzoa abian jartzea, gaixotasun profesionalen susmoak komunikatzeko sistema finkatzea eta laneko jatorria daukan minbizia ikertzeko estrategia garatzea. Proiektu horiek guztiek araubidearen babesa behar dute eta Osalanez nahiz Osasun Sailak lanean jardun dute horren inguruan 2015ean eta, segurutzek, amaituta egongo da 2016an.
- Lehen aipatu ditugun Emakunderekin partekatutako ekimenez gain, hona hemen sailen arteko beste proiektu batzuk:
 - **SEGURBIDE** ikerketa-proiektua. Proiektu horren helburu nagusia da enpresak eta prebentzio-zerbitzuak sentiberatzea bideko lan-istripuen



inguruan eta Trafiko Zuzendaritzak parte hartzen du bertan.

- **LAPen jarraipena egiteko batzordeak obra publikoetan eta azpiegitura handietan.** Batzorde horietan, lan-agintaritzak, lan-ikuskatzaileak, meatzaritzako agintaritzak, aldundiek eta enpresa publikoek parte hartzen dute eta obretan egindako 108 bisitaldi gainbegiratu dituzte.
- Estatuko Administrazio Orokorrarekin elkarlanean aritu da Osalan, hain zuzen ere, GSINekin, azkena erakunde eskumenduna baita laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen ziozko konpentsazioak aitortu eta emateko, eta DGOSS edo Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiarekin, behar-beharrezko informazioa baitauka Osalanek eginkizunak eraginkortasunez bete ditzan. Osalanek hitzarmenak sinatuta dauzka aipatutako bi erakunde horiekin eta, 2016ko ekitaldian, Osalanek hitzarmen horien garapena eta jarraipena egingo du.

Era berean, Osalanek **Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalen** parte hartzen du, bai osoko bilkuran, bai erakunde horren itzalpean sortutako batzorde eta lantaldeetan. Horiez gain, Osalaneko langileek erakunde arteko beste bilgune interesgarri batzuetan parte hartzen dute esperientziak eta jakintza trukatzeko LAPen jarduten duten beste eragile batzuekin.

ERANSKINAK

Ikusi datuen xehetasuna 6. eranskinean.

- Osalanen beste lan-ildo bat dugu laneko arriskuen prebentzio-arloan antzeko arazoak dituzten

autonomia erkidegoekiko proiektuak partekatzea. Horren haritik, 2015eko ekitaldian **CANO proiektua** gauzatu da, hots, arrantzaren sektorean jarduten duten langileen arriskuen ebaluazioa eta osasunaren zaintza hobetzeko asmo handiko lana, Kantaurialdeko gainerako erkidegoekin gauzaturik. 2016an, lan horren emaitzak zabaltzeaz gain, lankidetzaz-ildo berriak aztertuko dira beste jarduera-arlo batzuk aintzat hartuta.



CANO proiektuko kideen arteko bilera OSALANek Barakaldon duen egoitzan.

- Osalanek ez du Europatik baztertu nahi eta, horregatik, SAFERA-ERANET ekimenean parte hartzen jarraitu du, hazkunde iraunkorra eta adimentsua ahalbidetzeko industriako segurtasunari buruzko ikerketa-proiektuak finantzatzen, betiere euskal enpresei lotutakoak, eta bidenabar, nazioartekotzeko aukera eskaintzen prebentzioari esker.



2. ARDATZA

LSOren GAINEKO
JAKINTZA SORTZEA
ETA ZABALTZEA

2015 MEMORIA • KUDEAKETA PLANA 2016

- 3.- Informazio-sistema bat baliatzea jakintza sortzeko
- 4.- Jakintza sortzea ikerketa eta prestakuntzaren bidez
- 5.- Jakintza zabaltzea, enpresetan eta lantokietan erabiltzeko



2015-2020 aldiko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia hizpide hartuta, Osalanen jarduketan bigarren ardatza jakintza da edo, bestela esanda, **egiten** jakitea.

3. INFORMAZIO SISTEMA

Osalan erakudea jakitun da Euskal Autonomia Erkidegoko laneko segurtasun eta osasunaren egungo egoera zehatza eta sakona zein den jakinda, ez bestela, lortuko dugula politika eta jarduketa eraginkorrak diseinatzea. Horregatik, informazioa sortzeko arloa bereziki garrantzitsua erakundearentzat eta oso garrantzitsu izaten jarraituko du datozen urteetan.

Lehenik eta behin, laneko istripuei eta gaixotasun profesionalei buruzko datuak aztertzen ditugu, datuak bildu eta horien azterketa estatistikoa eginda. Horren emaitzaz **EAEko laneko istripu eta gaixotasun profesionalei buruzko txostena** prestatzen da, memoria honi dagokionez, 2014ko ekitaldikoa.

Laneko istripu eta gaixotasun profesionalen txostena 2014 EAE.



Nolanahi ere den, askoz gehiago sakontzen dugu istripuak sorrarazten dituzten zergatietan eta laneko jatorria omen duten patologien ikerketan.

- Horrela, gure autonomia erkidegoan gertatzen diren **laneko istripu** hilgarriak, oso larriak, larriak eta istripu anitzak ikertzen dira, bai eta, prebentzioaren ikuspegitik, jakingarriak diren istripu arinak ere.

-205eko ekitaldian, arreta berezia eskaini diogu basogintzaren sektorean gertatu den istripu-tasari. Ildo horretan, sektore horretan izan diren istripuen tasaren bilakaerari buruzko txostena prestatu dugu eta, era berean, **bideko lan-istripuak** aztertu ditugu. Ildo horretan, mota horretako istripuen gaineko azterketari 2016ko ekitaldian ere ekingo diogu, berariazko metodologia erabiliz, zergatik gertatzen diren aztertu eta halako istripuak prebenitzeko neurriak antzemateko helburuz.

IKERTUTAKO ISTRIPUAK: 246

Hilgarriak	Traumatikoak	14
	Ez-traumatikoak	16
Larriak / Oso larriak	Traumatikoak	129
	Ez-traumatikoak	1
Anitzak		3
Arinak		83

- Era berean, gaixotasun profesionalen ikerketa eta **zaintza epidemiologikoa** egiten dugu, laneko jatorria omen duten gaixotasunak aztertzen ditugu eta gaixotasun profesionalen gaineko susmoen jakinarazpenak eta osasun-alertak ikertzen ditugu.

128 GAIXOTASUN IKERTU DIRA

128 GAIXOTASUN IKERTU DIRA		
Arrisku mota	Amiantoa	80
	Gai kimikoak	20
	Gai fisikoak	8
	Gai biologikoak	5
	Ergonomia eta psikosoziozia	11
	Legionella	4

GAIXOTASUN PROFESIONALEN GAINEKO SUSMOEN JAKINARAZPENEA EAEN

2015			2014		
PPZZ	Osak.	Guztira	PPZZ	Osak.	Guztira
513	72	585	642	67	709

Laneko arriskuen prebentzioari lotutako beste eremu batzuetako informazioa ere jaso behar dugu eta, horrela, irismen luzeko proiektuak garatzen ditu Osalaneke eremu horietan, EAEko biztanleriaren laneko osasunaren egoera monitorizatu eta arriskuekiko esposizioa nahiz denbora igaro ahalako bilakaera aztertzeko. Arestian aipatutako proiektuak ditugu horiek: laneko historia klinikoaren ereduaren ezarpena eta prebentio-zerbitzuen gutxieneko datuen multzoa. Horiez gain, 2016ko ekitaldian, egungo ezbehar-tasaren patroia identifikatuko da, batzorde baten agindupeko ikerketa bat dela bide.

Lortu beharreko helburu gisa, Osalan **EAEko laneko segurtasun eta osasunari buruzko adierazleak** lantzen ari da —genero-ikuspegia txertatuta—, uneko egoera eta etorkizuneko joerak zein diren ezagutzeko, bai eta gauzatu diren jarduketan eragina ere zein den.

4. PRESTAKUNTZA

Laneko arriskuen prebentzioa lantokietan kalitatez eta eraginkortasunez egingo bada —eta, hortaz, langileen segurtasuna eta osasuna hobetuko bada—, behar-beharrezkoa da arloan jarduten duten pertsona guztiek gaitasun nahikoa izatea nori dagozkion eginkizunak era egokian bete ditzan.

Beste eragile batzuei, hala nola, enpresei edo unibertsitateari, prestakuntza-arloan dagozkien eginkizunei kalterik egin gabe, Osalanen helburua da talde jakin batzuei jakintza eskuetaratzea laneko arriskuen prebentzioaren alderdi jakin batzuei dagokienez, arauzko prestakuntzaren osagarri.

Laneko Arriskuen
Prebentzioko
Oinarrizko Ikastaroa
Prebentzioko
Ordezkarientzako.



- **Prebentzioko ordezkariak** lehenatasunezkoak dira eta horien prestakuntza erakundeak berak kudeatzen du. 2015eko ekitaldian, 1.594 laguni eman zaie prestakuntza.

Araudiari eta eginkizunak gauzatzeko beharrezko alderdi teknikoei buruzko ikastaroez gain, arrisku psikosozialei buruzko tailerrak antolatu dira. Halakoetan, prebentzioko 164 ordezkari hartu dute parte. 2016ko ekitaldian ere jarraituko dugu halako tailerrak eskaintzen.

- Erakundearen ustez, enpresetako prebentzio-jarduera espezializatuz arduratzen diren **laneko segurtasun-eta osasun-arloko profesionalen kidegoari** ere arreta berezia eskaini behar zaio. Profesional horiek guztiek enpresaren beraren prebentzio-zerbitzuetan eta prebentzio-zerbitzu mankomunatuetan eta kanpokoetan jarduten dute.

Osalanek bi modutan ekiten dio langileria tekniko eta sanitario horri.

-Alde batetik, profesionalak jasotzen duten arauzko prestakuntza onena izan dadin bermatuta. Horretarako, lankidetzeta-hitzarmen bat dela bide, Osalan elkarlanean aritzen da **EHUko Lan Harremanen Eskolarekin** laneko arriskuen prebentzioaren inguruko goi-mailako prestakuntza eskaintzen, eta jarduera hori finantzatzeaz gain, irakaskuntzan ere aritzen da. Gainera, **Euskadiko Laneko Medikuntzako Irakaskuntza Unitateko MIR R4** direlakoak prestatzen jarduten dugu.

- Bestetik, etengabeko prestakuntza bultzatuta. Ildo horretan, prebentzio-zerbitzuetako nahiz Osakidetzako langileria sanitarioarentzako ikastaroak antolatu dira, gaixotasun profesionalak antzemateari buruzkoak eta osasuna zaintzeko protokoloak aplikatzeari buruzkoak.

20 TAILER, 688 PARTE-HARTZAILE

LAPen kudeaketa	80
Laneko minbiziari buruzko prestakuntza (Bilbao praxis)	53
Gerriko min kronikoa eta lana	143
Zur-hautsaren eta irin-hautsaren protokoloen aplikazio praktikoa	45
Zaintza kolektiboa	111
Koagulazio-kontrako langilea eta lana	47
Lunbalgiaren maneia lanean	100

Aipatutako kidego horri eta beste interes-talde batzuei dagokienez, Osalanek **e-learning** prestakuntza hobetsi du Moodle plataformaren bidez. 2015eko ekitaldian lehen ikastaroa eman da eta 100 ikaslek izena eman dute bertan.

4. IKERKETA

Osalanek oraindik ere nahikoa ezezagunak diren — berriak direlako edo egundaino behar bezala jorratu ez direlako— prebentzio-arloko jarduera, arrisku eta egoerei buruzko jakintzaren sorrera bultzatzen du ikerketa-proiektuentzako diru-laguntzen bidez. Horrez gain, erakundeak berak ikerlanak egiten ditu horien gainean.

2015eko ekitaldiko diru-laguntzen deialdiaren zuzkidura 500.000 eurokoa izan da. Zenbateko horretatik, 100.000 euro erabili dira Europako SAFERA-ERANET programaren lankidetzakonpromisoan.

Guztizko aurrekontutik, 212.873,64 euro inbertitu dira 6 proiektu garatzen, horietako bat SAFERA programaren esparruaren barruan.

2015EAN DIRUZ LAGUNDUTAKO ERAKUNDEAK ETA PROIEKTUAK

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).- Maskuriko minbiziaren detekzio goiztiarra arrisku handiko langileengan.

AZTI Fundazioa.- ITSERGO – Itsas eta arrantza ontzietako lanei dagozkien arrisku ergonomikoen identifikatu eta ebaluatzeko metodologiaren azterketa eta gabeziak.

AZTI Fundazioa.- Upeletako gatzatua ebaki eta ateratzeko lanaren hobekuntza ergonomikoa artisau-gaztandegietan.

AERNNOVA-AEROSPACESAU.- Parametro biomekanikoen hobekuntza goiko gorputz-adarretako hezur-muskuluen lesioak prebenitzeko. Ariketa terapeutikoak.

Industria Segurtasunerako Espainiako Plataforma Teknologikoa (PESI) - SEGURBIDE Laneko bide-segurtasuna Euskadin.

SAFERA PROGRAMAREN EREMUAN GARATZEKO PROIEKTUA

TECNUN – Ingeniarren Eskola. Nafarroako Unibertsitatea – Lokalizazioa eta mantentze-lana irratimaitasuna eta nabigazio inertzialaren bidezko identifikazioa erabiliz.

2015eko ekitaldian, beste ikerketa-lerro bati ekin dio Osalanek **lehen sektorearen** inguruan. Ikerlan hori AZTI-TECNALIArekin elkarlanean gauzatu da, eragile teknologiko horrekin sinatutako hitzarmenaren eremuan. Horren ondorioz, honakoak ondu dira:

- “Arrantza-ontzietako segurtasuneko seinaleztapen eta kargakera egokiari buruzko gidaliburua” prestatu eta aurkeztu da.
- “Laneko jatorria duten hezur eta muskuluen nahasmenduen prebentzioa mahastizaintzan” izeneko lana gauzatu da, eta
- Teknologia, jardunbide eta prozesu osasungarrien zaintza eta berrikuntza (VIPROS) deritzon aplikazioa garatu da.



CC BY-3.0-ES 2012:EJ-GV:Irekia-Eusko Jaurlaritza: Mikel Arrazola



CC BY-3.0-ES 2012:EJ-GV:Irekia-Eusko Jaurlaritza: Mikel Arrazola

Erakundeak **arriku berriak eta gutxi ezagunak** aztertu ditu ekitaldian, hala nola, nanoteknologiari lotutakoak, eremu elektromagnetikoek osasunari sorrarazten dizkioten ondorioak eta lanean emandako denborek eta txandek arrisku psikosozialetan duten eragina.

Epidemiologiaren arloan, lanari lotutako kalteak (laneko istripuak, gaixotasun profesionalak, gaixotasun profesionalen susmoak, gaixotasun-agerraldiak, klusterrak...) ikertzeaz gain, EAeko zaintza epidemiologikoa egiteko estrategia garatu da laneko jatorria duten minbizi-mota batzuei dagokienez (mesotelioma, gibelesko angiosarkoma eta sinu paranasaletako adenokartzinoma). Estrategia hori 2016an garatuko da, Osasun Sailarekin elkarlanean.

5. JAKINTZAREN ZABALKUNDEA

Arlo honetan, Osalanen xede nagusia da laneko segurtasun eta osasunari buruzko jakintza hartzaileei heltzea eta lantokietan erabiltzea. Horregatik, erakundeak landa-lan handia egiten du eta, 2015eko ekitaldian, ia-ia **3.000 enpresatara** egin du bisita, prebentzio-jarduerak bertatik bertara ikuskatu eta aholkularitza teknikoa emateko.

- Jarduketa horietan, Osalaneko teknikariek lehen sektore, industriaren sektore eta zerbitzuen sektoreko 361 **lantoki ireki berri** bisitatu dituzte, gauzatu beharreko lehen ekintzen inguruko aholkularitza emateko eta horien guztien prebentzio-arloko konpromisoa egiaztatzeko.

Bisita horiez gain, berariazko kanpainen barruan egindakoak ere aipatu behar ditugu, besteak beste, honako hauek: **kromo hexabalentea** dela eta egindako bisitak; **arriku psikosozialak** direla eta, osasun-jardueren sektoreari atxikitako enpresa publiko eta pribatuetara egindako bisitak; **tindategien sektorean**, gai kimikoen egoera ebaluatzeko egindako bisitak.

Azken bolada honetan, erakundea ahalegin bizia egiten ari da segurtasuna eta osasuna hobetzeko sektore korapilatsu batean, **eraikuntzan**, hain zuzen ere. Horrela, Osalaneko teknikariak **1.516 obratan** egon dira, eta gomendioak eman dizkie **2.152 enpresari**.



CC BY-3.0-ES 2012:EJ-GV:Irekia-Eusko Jaurlaritza: Mikel Arrazola

2015eko ekitaldian, enpresa txikiek eta norberaren konturako langileek gauzatutako birgaitze-obretarako bisiten kanpainen lehen fasea hedatu da. Horietan, bereziki landu dira istripuetan gehien ageri diren elementuak, hala nola, aldamiok eta estalki-lanetako babesak.

- Landa-lana baliatuz eta herritarrek parte-hartzeko bideetatik urtean jasotzen **10.000 kontsulta baino gehiago** erantzunez, Osalanek aholkularitza eta laguntza teknikoa eskaintzen ditu, batez ere, enpresei, langileei, langileen ordezkariari eta laneko segurtasun- eta osasun-arloko profesionalen kidegoari, bai eta erakunde eta enplegatu publikoei, lanbide-elkargoari, elkartei edo jabekideen erkidegoari.

3. ARDATZA

LAP KUDEATZEA

6.-Arriskuak kudeatzea helburu duten LAPen jarduketan kalitatea sustatzea

7.- Laneko baldintzen hobekuntza bultzatzea

8.- LAP kudeaketan txerta dadin bultzatzea



Aurreko ardatzetan, Osalaneke jarrerak (egin nahi izatea) eta jakintza (egiten jakitea) lantzen ditu. Hirugarren ardatzean, berriz, helburu nagusia dugu tresna eta lanabesez hornitzea laneko arriskuen prebentzioa **egin ahal izateko** eta langileen lan-baldintzak, segurtasuna eta osasuna hobetu ahal izateko.

6. PREBENTZIO EKINTZAREN KALITATEA

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko legeria oso luzea eta konplexua da eta, gainera, eremu zabala hartzen du. Horregatik, laguntza eskaini behar da eragileek modu erraz eta eraginkorrean bete dezaten, batez ere, enpresa txikiek.

- Esandakoa dela eta, Osalaneke lehentasunezkoildoetako bat dugu gidaliburuak, jarraibideak eta gomendioak ematea prebentzio-arloak egoki bete daitezten.

2015eko ekitaldian ekoiztako euskarrien artean, hauexek aipatu behar ditugu:

- **Zubien eraikuntzan**, laneko arriskuak prebenitzeko gidaliburua.
- Prebentzio-zerbitzuek **zaintza kolektiboa** ezartzeko gidaliburua.



Laneko zaintza epidemiologikoa. Prebentzio zerbitzuek zaintza kolektiboa ezartzeko gidaliburua.





- **Amiantoarekiko** esposizioa izan duten langileen biriketako minbiziaren osasun zaintzari buruzko gidaliburu kliniko eta Dosi txikiko TACen erabilera. Azken argitalpena Galdakaoko ospitaleko Pneumologia zerbitzuak egin du, Osalanen laneko osasun arloarekin elkarlanean.

Beste alde batetik, honako hauek lantzen dihardugu, 2016ko ekitaldian argitaratu eta zabaltzeko:

- Garaierako lanei buruzko segurtasun-gidaliburua.
- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko baldintza teknikoaren agiria, eraikuntzako obretan erabiltzeko.
- Jabekideen erkidegoetan egiten diren obrei eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko gidaliburua.
- Zarataren eraginpean lan egiten duten langileen osasun-zaintzaren protokoloaren berrikuspena.
- Prebentzioa sustatzeko funtsezko tresna den aldetik, Osalaneke bultzatu du **arriskuen ebaluazioa** zorrotzasunez eta kalitatez egin dadin, bereziki, krisialdi ekonomikoaren ondorioz edo jakintza urriaren ondorioz, behar besteko sakontasunez jorratzen ez diren arriskuei dagokienez.

Ildo horretan, erakundeak bi lan-ildo garatu ditu: horietako batek **arrisku kimikoa** jorratzen du eta besteak **alderdi psikosozialak**. Ildo bietan ala bietan azaltzen da mota horretako arriskuak enpresan nola aztertu eta, gainera, azterketa hobetzeko gomendioak eskaintzen dira.

Silizearekiko esposizioaren ziozko arriskua ere berariaz landu da. Gaur egun, jarduketa integrala lantzen ari da erakundea, alderdi sanitarioak eta teknikoak aintzat hartuta, eta 2016an ere jarraipena izango du.

- Azkenik, prebentzio-jarduera laneko bizitzatik haratago hedatzeko asmoz, Osalaneke amiantoarekiko ustezko esposizioa izan duten pertsonen **lan egin osteko osasunaren zaintza** bultzatzen du. Horretarako, fitxategi egokia kudeatzen eta eguneratzen du eta 2015eko ekitaldian 57 sarrera txertatu dira.

Zubigintzarako Laneko Arriskuen Prebentziorako Gida Teknikoa.



7. LANEKO BALDINTZAK HOBETZEA

Osalanen beste lan-ildo bat dugu laneko baldintzak hobetzea lan-inguruneko segurtasuna eta osasuna areagotzeko xedez. Zeregin horretan, erakundeak lan-baldintzei eragiten dieten alderdi guztiei ekiten die.

- Ildo horretan, aipatu beharra dago SPRIk sustatzen duen **RENOVE programan** parte hartzen duela erakundeak. Programa horren bidez, diru-laguntzak ematen dira enpresek makina berriak eta seguruagoak eros ditzaten. Aipatutako RENOVE programak 2014ra arte garatutako MEP programa ordeztu du eta, horri esker, diru-laguntza jasotako 300 enpresek 366 ekipo eskuratu dituzte guztira.



CC BY-3.0-ES 2012:EJ-GV:Irekia-Eusko Jaurtaritza: Mikel Arrazola

- Arrisku ergonomikoei lotutako alderdiak ere aztertu ditu erakundeak, **ERGOZAINZTA** proiektua dela bide. Bertan, adinekoren egoitzetan jarduten duten langileen arrisku ergonomikoekiko esposizioa landu da, Ergonomia Aplikatuko Zentroarekin (CENEA) elkarlanean.

“Euskal Autonomia Erkidegoko egoitza publikoetako erabiltzaileen eskuzko mobilizazioaren ziozko arriskuak aztertzeke protokoloen diseinua eta aplikazio pilotua” izeneko agiria argitaratu da eta, bestalde, lan-ildo bati ekin dio erakundeak lantalde berezi baten bitartez.

8. PREBENTZIOA KUDEAKETAN TXERTATZEA

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko legeriak dioenari jarraiki, prebentzio-jarduerak enpresaren kudeaketan txertatu behar da eta erakundea osatzen duten hierarkia-maila guztiek berenganatu behar dute. Nolanahi ere, prebentzioari lotutako jarduerak eta erabakiak enpresen ohiko jardunbidean txertatzea ez da lan erraza enpresa txiki eta ertainentzat, batik bat, sektore jakin batzuetan, eta horregatik, Osalanek ahaleginak egiten ditu halako enpresei laguntzeko, prebentzioa sustatzeko helburuz.

- Azken urteotan, Osalanek laneko arriskuen prebentzioa sustatzen dihardu lehen sektoreari lotutako jardueretan, ezbehar-tasa biziki handia delako, lan-baldintzak oso gogorrak direlako eta, gainera, prebentzio-sistemak ezartzeko antolaketarik ia ez dagoelako.



Aurreko ataletan aipatu ditugun zabalkunde-jardueraz gain, 2015eko ekitaldian, beste ekimen batzuk garatu dira AZTI erakundearekin elkarlanean.

- Horrela, **baxurako arrantzaren** sektorean, bisitak egin dira Euskadiko flotako 60 arrantza-ontzitan, 30 Bizkaian eta 30 Gipuzkoan. Kanpaina hori 2016an ere garatuko da eta horren helburua da jasotze- eta bultzatze-makinak aztertzea eta norbera babesteko ekipamenduz hornitzea.



CC BY-3.0-ES 2012:EJ-GV:Irekia-Eusko Jaurlaritza: Mikel Arrazola

- **Nekazaritza eta abeltzaintzari** dagokionez, Osalan ahalegin handia egiten ari da informazioa biltzen eta aztertzen, sektorea sakon ezagutu eta bertan jarduketa eraginkorragoak bideratu ahal izateko.

Horri kalterik egin gabe, 2015ean ere nekazaritzako sasoikako lanari buruzko kanpaina gauzatu da ARabako lurralde historikoan, EAeko erakundearteko mahaiak prestatu duen 2013-2016 aldiko Sasoikako Lanaren Arretarako III. Plan Integralak dioenarekin bat etorritik. Hala, erakundeak 38 interesgunetan jardun

du, besteak beste, Osakidetzako zentroetan, udaletan, elkarteetan, kooperatibetan, mahats-bilketan aritzen diren nekazaritzako ustiatzietan eta upeldegietan.

- **Basogintzaren** sektorean, aldiz, lanak behar bezala gauzatzeko jardunbide egokiak landu dira. Horretarako, arestian aipatu dugun "Errematatzaileen gidaliburua" eta "Prebentzio-aholkuak basogintzaren sektorean" izeneko argitalpena zabaldu dira.

2015eko ekitaldian gauzatutako landa-lanaz den bezainbatean, esan behar da bisitak egin direla lantoki ireki berrietan eta gertaturiko istripuak ikertu direla. Horiez gain, basogintzako teknikak darabiltzaten lorazaintza-enpresei zuzendutako kanpaina bat diseinatu da. Kanpaina 2016an garatuko da.

- Enpresen prebentzio-kudeaketan sarritan ahaztu antzean geratzen den alderdietako bat **bideko lan-segurtasuna** da eta, halaber, errepidean gertatzen diren lan-istripuen kudeaketa.

Auzi horri dagokionez, Osalanek bi ildo nagusi jorratzen dituen ekimen bati ekin dio; alde batetik, SEGURBIDE proiektuak aletzen duen ikerketa baliatzen du eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoan gertatzen diren istripuen biltze-lan sakon eta zehatza egiten du, istripuen zergatiak argitu eta zergati horiei aurre egiteko ekintzak zehazteko helburuz.



4. ARDATZA

HERRI ADMINISTRAZIOAK

2015 MEMORIA • KUDEAKETA PLANA 2016

- 9.- Antolakunde, administrazio eta beste erakunde batzuekin koordinatzea eta elkarlanean aritzea, aliantza estrategikoak eratuta
- 10.- Osalenen zerbitzua eta kudeaketa hobetzea

Osalanen jardueren laugarren ardatzaren funtsa dugu 2015-2020 aldiko Laneko Seguratasun eta Osasunerako Euskal Estrategiak herri-administrazioei esleitzen dien eginkizuna. Eginkizun horren arabera, herri-administrazioek **lidergoa izan behar dute eta balioa sortu behar dute** baterako jarduketa koordinatuen bidez laneko arriskuen prebentzioaren arloan.

2015eko ekitaldian, bi esparru landu dira erakundeak ardatz horretan bere gain hartu dituen helburuak lortzeko: alde batetik, beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzeko aliantza estrategikoak lantzea eta, bestetik, Osalanen beraren kudeaketa eta erakundeak ematen dituen zerbitzuak hobetzea.



Osalaneko Zuzendari orokorrak Palestinako Lan-Ministeritzako eta Palestinako Seguratasun eta Lan Osasuneko batzorde Nazionalako kideei harrera eman zien, Osalaneke Barakaldon daukan egoitzan. Bisitaldian, ezagutu zuten nola antolatzen den Euskadin lan-arriskuen prebentzioa, zeintzuk diren arlo honetan parte hartzen duten erakundeak eta Osalaneke dituen gidalerro nagusiak.



Argazkiaren erdialdean, Europako Agentziako zuzendaria, Christa Sedlatschek, eta Osalanekeko zuzendari orokorra, Izaskun Urien, Osalanekeko Administrazio, Antolakuntza eta Giza Baliabideen Zuzendariordea den Andoni Gamboak eta Europako Agentziako Sustapen-korporatiboko Arduraduna den Marta Urrutiak lagunduta.

9. ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA

Arestian esanenez, Osalaneke lankidetzari eusten dio Eusko Jaurlaritzako sailekin eta beste herri-erakunde batzuekin jardura jakin batzuk garatzeko. Izan ere, lankidetzari hori egon ezean, aipatutako jarduerak ibilbide laburrekoak izango ziren edo, bestela, ez ziren oso eraginkorrak izango.

Jardura horiek gain, erakunde guztiak elkarlanean aritzen dira era koordinatuan nor bere eskumenei men eginda, laneko ingurune segurua eta osasungarria erdiesteko xedez. Horren haritik, Osalaneke aholku organoarena egiten du eta **aholkularitza teknikoak** eskaintzen die agintaritzari eta administrazioei gai askotan. Hala, 2015ean, 254 eskaerari erantzun die.

EAEN AURKEZTUTAKO PLANAK	458
PLANAK AURKEZTU DITUZTEN ENPRESAK	57
ONARTUTAKO PLANAK	374
EGINDAKO BISITAK	437

- **Lan-agintaritzari** dagokionez, lankidetzak askotariko arlotan garatzen da, baina nabarmendu beharrekoa da amiantodun materialak kentzeko aurkeztu diren laneko planen kontrola eta prebentzio-zerbitzuak egiaztatzeko baldintzak.
- Osasun-arloan, Osasun Sailarekin koordinatuta, Osalanez eskumena dauka **osasun-agintaritzaren** eginkizunak gauzatzeko prebentzio-zerbitzuen aurrean. Hala, 140 baimen-eskaerari erantzun die, 4 salaketa izapidetu ditu eta 8 zehapen-espeditente proposatu ditu.

306/1999 DEKRETUA, uztailaren 27koa, aurrezaintzako zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegoan burutzen dituzten jarduera sanitarioak arautzen dituena.

- **Industriako segurtasunaren** arloan, Osalan lankidetzan aritu da Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin, fabrikatzaileek, inportatzaileek eta merkaturatzaileek Makinen Segurtasunari buruzko Zuzentaraua bete dezaten, indarrean dagoen protokoloari jarraiki.

- Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri-administrazio batzuei dagokienez, azpimarratu behar da **foru aldundiekin** izandako elkarlana, batez ere, laneko arriskuen prebentzioaren jarraipen-lanari dagokionez, azpiegitura handietan eta errepideetako mantentze-lanetan.
- **Tokiko administrazioei** gagozkiela, Osalanez aholkularitza eskaini die hala eskatu duten udalei, batez ere, amiantoari eta eraikuntzako obrei lotutako auzien inguruan.

Gainera, 2015eko ekitaldian, udalak bete-betean ukitzen dituen alderdi bat landu da, hots, ekitaldi edo ikuskizun publikoen muntatzea eta desmuntatzea. Ildo horretan, mota horretako lanetan erabiltzeko jardunbide egokien gidaliburua argitaratu da.

Ikuskizunetarako aldi baterako egiturak.




10. OSALANEK EMATEN DITUEN ZERBITZUAK ETA KUDEAKETA HOBETZEA

Osalanek konpromisoa hartu du **AURRERABIDE** deritzon kudeaketa publiko aurreratuko eredia ezartzeko, eta lan horri ekiteko, erakundeak ematen dituen zerbitzuak eta jardunbidea bera hobetzeko ekintza batzuk gauzatu dira.

- Horrela, agiriaren kudeaketa eta artxiboa landu dira, baita kontsulten arreta, komunikazioa, barruko prestakuntza, informazio-sistema eta datu pertsonalak babesteko politika ere.
- Zeinahi herri-administraziook gizartearen aurrean eduki daukan gardentasunaren betebeharrari jarraiki, Osalanek jardueren oroitza-txosten eta kudeaketa-planaren zabalkundea egiten du urtero-urtero, eta horrela egin du 2015eko ekitaldian.
- Aurrerapen handia izan da erakundearentzat Osalanen **zerbitzuen eskaintza** taxutzea eta zerbitzu horiek eskaintzeko prozesuen mapa zehaztea. Horren ondotik, erakundeak prozesu guztiak berriro diseinatu eta dokumentatu behar ditu. Lan hori 2016an egingo da, berariaz sortutako lantaldeen bidez.



PROZESUEN MAPA



- **Osalanen Higiene-analisien laborategiak** 3.622 azterketa eta 268 txosten egin ditu guztira, horietako batzuk erakundearentzat berarentzat, garatutako proiektuen eremuan. Gehienak, baina, prebentio-zerbitzuek egindako eskaerei erantzuteko egin dira eta 29.110 euro fakturatu dira.

Laborategiak eskainitako zerbitzuak jasotzen dituen hiruorrikoa argitaratu da. Amianto-zuntzen zenbaketa ere ageri da zerbitzuetan, laborategiak horretarako ziurtagiria dauka 2015eko apiriletik.



Higiene Analisien Laborategia esku-orria.



ERABILITAKO BALIABIDEAK

Baliabide ekonomikoak

2015eko ekitaldiko aurrekontuari dagokionez, aipatu beharra dago 2015-2020 aldiko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia abiarazi zela; hala, estrategia diseinatu eta bertan jasotako ekintzak hedatzen

hasi ziren; bestetik, aurreko strategiaren esparruan hasitako ekintzak amaitu ziren eta, azkenik, urte anitzekoek garapenari ekin genion.

Horretarako, 2015eko ekitaldian, OSALANek ondoko Sarrera eta Gastuen Aurrekontua erabili zuen:

GASTUAK		
I. kapitulua	Langileria gastuak	9.881.903
II. kapitulua	Jardunbide gastuak	2.139.172
III. kapitulua	Finantza gastuak	225
IV. kapitulua	Gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak	1.442.700
VI. kapitulua	Inbertsio errealak	307.000
VIII. kapitulua	Finantza-aktiboen gehikuntza	30.000
GUZTIRA		13.801.000

SARRERAK		
III. kapitulua	Tasak, prezio publikoak eta beste sarrera batzuk	33.294
IV. kapitulua	Gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak	12.936.206
V. kapitulua	Ondare-sarrerak	1.500
VIII. kapitulua	Finantza-aktiboen gutxipena	830.000
GUZTIRA		13.801.000

Egitura eta langileria

Aurreikusitako ekintzak gauzatu eta erakundeak behar bezala jarduteko helburuz, Osalanek eraz doitu zuen plantilla, betiere Funtzio Publikoak eskaintzen dituen aukeren baitan. 2015eko abenduaren 31n, erakundeak 176 lanpostu zeuzkan.



2016ko KUDEAKETA PLANA

2015 MEMORIA • KUDEAKETA PLANA 2016

03.

1

2016KO LAN-ILDOAK

2016an, jakina denez, Osalanek landuko dituen lan-ildoak 2015-2020 aldian garatuko den Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiari datzekio, eta bertan ezarritako xedea betetzea eta helburuak lortzea ahalbidetuko dute.

Hala eta guztiz ere, laneko segurtasun- eta osasun-arloaren esparru zabalean, Euskal Autonomia Erkidegoak arlo honetan bere gain hartu dituen helburu handinahikoak aintzat hartuta, behar-beharrezkoa dugu Osalanean ardatzak eta lehentasunak ekitaldirik ekitaldi zehaztea.

Eta lehentasunak zehazteko, kontuan hartu beharreko lehen alderdia aurreko urtean egindakoa da, hots, lortutako emaitzak eta, emaitzetan oinarriturik, berriro egin, zuzendu edo gauzatu beharreko ekintzak. Horregatik, atal honen hasieran, Osalanek 2015ean burututako ebaluazioa egingo dugu.

Bestetik, aipatutako balantze horren osagarri, laneko arriskuen prebentzio-arloan, Europa zernolako lehentasun jorratzen ari den aztertuko dugu, eta horretarako, Europako Parlamentuak, 2015eko

azaroaren 25eko Ebazpena dela bide, mahairatu dituen ekimenen laburpena ekarriko dugu txosten honetara.

Bi ikuspegi horietan funtsaturik, betiere laneko segurtasun eta osasunean eragina izan dezaketengure lurraldeko gizarte- eta ekonomia-egoerari lotutako inguruabar jakin batzuk aintzat hartuta, Osalanean 2016ko lehentasunak eta jomugak zehaztuko ditugu eta, horien ondotik, lehentasun-helburuok lortzeko ekintzak proposatuko ditugu.





a. 2015eko balantzea

Laneko segurtasun- eta osasun-arloari atxikitako esparruetan, Osalanek 2015eko ekitaldian gauzatutako egintzei dagokienez –horien guztien berri zehatza eman dugu aurreko atalean–, esan beharra dago erakundeak lan handia egin duela eta, askotariko jardueren bidez, eremu zabal-zabalean aritu dela.

- Gauzatutako jarduera guztien artean, nabarmentzekoa da Osalanek enpresetan eta laneko arriskuen prebentzioko eragile nagusien artean **jakintza**ren **sorreraren eta prebentzio-kulturaren** alorrean egindako lana.

Prestakuntza- eta zabalkunde-ekitaldi, argitalpen, hainbat formatutan editatutako material, hedabide eta sare sozialen bidez hedatutako mezu eta edukiez gain, landa-lana eta Osalaneko langileek lantokietan burututako jarduerak aipatu behar ditugu. Azkenik, azpimarratu beharra dago erakundeak 10.000 kontsulta baino gehiagori erantzuten diela bulegoetan urte osoan.

Esandako bide horietatik guztietatik, gomendioak eman, irizpide tekniko eta zientifikoak eskaini, arau eta araudiak aplikatzeari buruzko aholkuak eman eta

laneko segurtasun-eta osasun-arloa garatzen deneko lekuan bertan egoteko aukera dugu, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeetan –horrek berebiziko garrantzia dauka–. Egiatan gertatzen denaren gaineko ikuspegia Osalanen lanabesik garrantzizkoenetakoa da, jakintza eta esperientzia eskuratzeko aukera ematen baitio erakundeari eta, horri esker, ekintza eraginkorragoak bideratzen ditu.

- Osalanek 2015eko ekitaldian zehar egindako lanari dagokionez, guztiz azpimarragarria da erakundeak egindako ahalegina balioa sortzeko eta, horren birtartez, 2015-2020 aldiko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiak ezarritako IKUSPEGIA herri-administrazioetan hedatzeko.

Illo horretan, ahalegin bizia egin du erakundeak oraindik ere ezagutza nahikorik ez den arrisku, jarduera eta kidegoei buruzko azterketak egin eta ikerketa sustatzeko.

Kasurako, emakumeen laneko segurtasun eta osasunaren inguruko arazoak ikusarazten, biztanleria zahartzeak dakarren erronkari ekiten, arrisku ergonomiko eta psikosozialen tratamendua bideratzeko tresnak eskaintzen, nanomaterialek



sorrarazten dituzten arazoak ikertzen edo lehen sektorearentzako proiektuak bultzatzen jardun du Osalanek, berrikuntza lantzeko helburuz laneko arriskuen prebentzioaren gaineko ikusmoldean.

- Lanaren hirugarren zutabea dugu Osalanek **enpresa txiki eta ertainei** eskaintzen dien laguntza. Arlo horretan, aipatutako laguntzaz gain, berriazko jarduerak antolatu dira **norberaren konturako langileentzat** zenbait sektoretan, besteak beste, eraikuntzan, ostalaritzan eta merkataritzan (saltoki txikiak).

Izan ere, saltoki txikiak eta norberaren konturako langileek badituzte arazo handienak prebentzio-jarduerak garatzeko eta, aldi berean, enpresa handi eta industriako jardueren ingurumarian pentsaturiko legeria behar bezala betetzeko; horregatik, erakundeak lehenasunez kotzat jotzen ditu ETEak.

- Aurrekoaz gain, oso garrantzitsuak dira Osalanek beste administrazio, erakunde eta agintaritza batzuei eskaintzen dien laguntza eta aholkularitza, zeini dagozkion eskumenen erabileran. Osalanek eduki daukan lankidetzaz-asmo garbiaren ondorioz, **aliantzak eta hitzarmenak** sinatu dira ekimenak garatzeko hainbat prebentzio-ardotan.
- Azkenik, ezin ditugu aipatu gabe utzi erakundeak egindako ahaleginak eta erabili dituen baliabideak **kudeaketa eta eskaintzen dituen zerbitzuak** hobetzeko. Hala, 2015eko ekitaldian, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako kudeaketa publiko aurreratuko Aurrerabide eredua ezartzen jardun du Osalanek. Erakundearen zerbitzu-eskaintza eta prozesuen mapa ditugu lan horren emaitza

ikusgarrienak. Ahalegin horien helburu nagusia da erakundeak kudeaketa-tresna egokiak eskuratzera herritarren eskariei eraz erantzuteko.

2016ko ekitaldian, Osalan jakitun da erronka ugari ekin beharko diela: 2015eko ekintza askori heldu beharko die, batzuk iraunkorrak edo urte anitzekoak direlako, baten bat atzeratu egin delako, eta beste batzuk, emaitza ikusita, bigarren aldiaren garatu beharko direlako.

Nolanahi ere den, ekintza horiek 2016ko proposamen berriei batera garatuko dira. Azkenak geroago azalduko dira.



b. Laneko segurtasun eta osasunerako Europako esparrua

Europar Batasunaren eremuan, 2014-2020 aldiko laneko osasun- eta segurtasun-arloko esparru estrategikoa Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 6ko komunikazioan jaso zen. Bertan ezarritakoak erabili ziren, nagusiki, 2015-2020 aldiko Laneko Segurtasun eta osasunerako Euskal Estrategia prestatzeko.

la urte eta erdi geroago, Europako Parlamentuak Batzordeari eta estatu kideei eskatu zien auzi jakin batzuen inguruan lan egin zezaten, 2015eko azaroaren 25eko Ebazpena dela bide, 2014-2020 aldiko laneko osasun eta segurtasunerako EBren esparru estrategikoa oinarritzat hartuta (2015/2107(INI)).

Europak nabarmendutako arloak aztertutik, Osalanez poztasun handiz esan dezake arlo horietan gehienetan lanean dabilela eta gehien-gehienak jasoko direla 2016ko Kudeaketa Planean.

Europako Parlamentuak jardun-esparru bakoitzean emandako gomendio zehatzetan sakondu gabe, jarraian, orokorrean aipatuko ditugu.

- Langileek **arrisku handienak** dituzten sektoreak.
- **Genero-ikuspegia** prebentzian txertatzea:
 - Emakumeen arazo eta arrisku zehatzak lantokian, baita sexu-jazarpena ere;
 - Emakumeak kontuan hartzea erabakiak hartzeko prozeduretan.

- **Gizarteko solaskideen eta gizartearen beraren** ekarpenak.
- **Mikroenpresak eta enpresa txikiak** eta zerbitzu publikoei atxikitako sektore batzuk.
- Langileen parte-hartze **aktiboa**.
- **Arriskuen ebaluazioa** behar bezala dokumentaturik.
- **Kartzinogeno, mutageno** eta ugalketarako toxikoak diren substantziekin espozizioa.
- **Amiantoaren** kudeaketa eta ezabaketa segurua.
- **Muskulu eta hezurren** asaldura.
- Langileen espozizioa **agente fisikoek** sorrarazitako arriskuen aurrean.
- Profesionalen espozizioa **asaldatzaile endokrinoek** sorrarazitako arriskuen aurrean: plagizidak eta biozidak.
- Prebentzioa **nanoteknologia** eta **bioteknologiaren** alorretan.
- **Gaixotasun kronikoek** eta **ezintasunak** jotako pertsonen integrazioa eta birgaitzea; lantokia egokitzea eta moldatzea.
- Aldaketa teknologikoek sorrarazitako **arrisku berriak**.
- **Arrisku psikosozialak**, besteak beste, estresa, depresioa eta neke profesionala.

- Laneko jazarpena eta **indarkeria**.
- **Gizatalde ahulak**, hala nola, gazteak, iraupen luzeko langabeak eta lekuz aldatutako langileak.
- **Laneko bizitzaren eta bizitza pribatuaren** arteko oreka.
- Biztanleria aktiboaren **zahartzea**.
- Sektore guztietako gaixotasun, esposizio eta arrisku profesionalei buruzko **datu fidagarriak eta erkagarriak** biltzea; **adierazleak** eguneratzea eta aurkeztea.
- **Eskolako ikasketa-planak** maila guztietan.
- Prebentzio-zerbitzuen **kalitatea**.
- Lanari lotutako **minbizia**.

C. Osalenen helburuak eta lehentasunak 2016ko ekitaldian

Osalenen 2016ko helburuak eta lehentasunezko lanildoak zehazterakoan, besteak beste, gure autonomia erkidegoan dagoen gizarte eta ekonomia egoera aintzat hartu behar dugu eta, jakina, egoera horrek laneko arriskuen prebentzioan izan dezakeen eragina. Azaletik, egoera horren inguruko alderdi batzuk aipatuko ditugu:

- **Krisialdia** ez dugu erabat gainditu eta berriro atzeraldian hasteko mehatxuak gero eta handiagoak dira, merkatuen eta garatzeko bidean ari diren herrialdeen egoera ansiaren ondorioz.
- **Ezbehar-tasa** zerbait igo da, beharbada, jarduera handitu delako eta krisialdiak "lasakeria" ekarri duelako prebentzioaren arloan.
- Istripu eta gaixotasun profesional guztiak **ez dira azaleratzen**, hein handi batean, laneko harremanetan prekarietatea nagusi delako eta benetako egoera itxuraldatzen duelako, datu ez zorrotzeziak erabilita.
- Lan-merkatua gero eta **globalizatua** da, aldaketak azkarregi gertatzen dira, enplegatzeke era berriak eta bestelako mugikortasun-beharrizanak sortzen dira, baina, hala ere, **tradiziozko sektoreekin** uztartu behar dira.
- Biztanleria aktiboa **zahartzen ari da** eta lan-merkatuan hasten diren pertsonen ezaugarriak askotarikoak dira.



2016ko HELBURUAK

Osalanen aburuz, 2016 aukeraz beteriko urtea da. Alde batetik, aurreko urteetan hasitako asmo handiko ekimenak garatzen jarraitzeko; izan ere, ekimen horien garapena begien bistakoa da eta amaiera eman nahi diegu hasitakoei. Beste alde batetik, proiektu berriei ekiteko, gure iritziz, lehentasunezkoak diren arloetan, 2015ean gauzatutako ekintzen emaitzak eta Europako erakundeetatik proposatutako lan-ildoak aintzat hartuta. Azkenik, kudeatzeko era berria finkatzeko, herritarrentzako zerbitzua eta gardentasuna abiaburutzat hartuta.

Beste alde batetik, erakundearen 2016ko lehentasunak ezartzerakoan, ezin dugu ahaztu Osalanek 2020ra arte ezarrita daukan **IKUSPEGIA**, ezta erakundeak jorratu beharreko XEDEA ere, biak ala biak AURRERABIDE proiektuaren esparruan zehaztu direla.

IKUSPEGIA

OSALANEN IKUSPEGIA 2020 URTERA ARTE

Osalan erreferentziazko erakundea da Europar Batasunean, laneko segurtasun- eta osasun-arloko politika publikoak sustatzen duen organismoa den aldetik, batez ere, ondokoei dagozkien arloetan:

- Jakintza sortzea
- Laneko osasuna eta prebentzioaren kultura sustatzea
- Aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea
- Herri-erakunde eta laneko segurtasuna eta osasuna sustatzen duten eragileekiko lankidetzat bultzatzea



Aztertuta inputak aintzat harturik, behar-beharrezkoa da 2015eko ekitaldian ezarritako **helburu estrategikoak** berrikustea. Gure ustez, helburu horiek guztiz baliagarriak dira ekitaldi honetan, bai eta erakundearen jarduketak garatzeko finkatu ziren lan-esparruak eta lan-ildoak ere.



ARDATZA	OSALANEN HELBURUAK
<p>1. ARDATZA: LAPen KULTURA</p>	<p>0.1.- Laneko Arriskuen Prebentzioaren kultura sustatzea.</p> <p>0.2.- Eragileen eta herritarren parte-hartzea erraztea.</p>
<p>2. ARDATZA: LSOren GAINEKO JAKINTZA SORTZEA ETA ZABALTZEA</p>	<p>0.3.- Informazio-sistema bat baliatzea jakintza sortzeko arriskuen eraginaren, kalteen eta erabilitako neurrien eraginkortasunaren inguruan.</p> <p>0.4.- Jakintza sortzea kalteak prebenitu eta osasunaren hobekuntza sustatzeko.</p> <p>0.5.- Jakintza zabaltzea, enpresetan eta lantokietan erabiltzeko moduan, aholkularitza eta laguntza teknikoa emanda.</p>
<p>3. ARDATZA: LAP KUDEATZEA</p>	<p>0.6.- Arriskuak kudeatzea helburu duten LAPen jarduketan kalitatea sustatzea.</p> <p>0.7.- Laneko baldintzen hobekuntza bultzatzea.</p> <p>0.8.- LAP kudeaketan txerta dadin bultzatzea.</p>
<p>4. ARDATZA: HERRI ADMINISTRAZIOAK</p>	<p>0.9.- Antolakunde, administrazio eta beste erakunde batzuekin koordinatzea eta elkarlanean aritzea, aliantza estrategikoak eratuta.</p> <p>0.10.- Osalanen zerbitzua eta kudeaketa hobetzea.</p>



2016ko LEHENTASUNAK

2016ko helburuak lortzeko, hainbat lehentasun ezarri ditugu, besteak beste, honako hauek:

- Gizartea **kontzientziaztea eta sentiberatzea**, batez ere, arriskuen prebentzioan zuzeneko ardura duten eragileak, era eta izaera askotako zabalkunde- eta prestakuntza-ekintzak jarduerak antolatuta, xedetaldea zein den:
 - Zabalkunde- eta prestakuntza-jardueren eskaintza dibertsifikatzea, erabil daitezkeen bide eta bitarteko guztiak aztertuta eta euskararen erabilera bultzatuta.
 - Formatu bizkorrak, ikusizkoak eta erabilerrazak baliatzea.
 - Prebentzio-arloko profesional eta adituentzako jardunaldi tekniko eta tailerrez gain, besteak beste, gazteentzako ekitaldiak, prebentzio-ordezkarientzako ikastaroak eta sektoreko jardunaldiak antolatzea.
- **Enpresa txiki eta ertainei** eta norberaren konturako langileei laguntza ematea laneko arriskuen prebentzio-jarduerak gara ditzaten eta jarduera horiek kudeaketan txerta ditzaten. Horretarako, bereziki landuko dira prebentzioaren kultura nekez landu duten sektoreak, hala nola, lehen sektorea eta eraikuntza.
- Laneko arriskuen prebentzio-jardueren **kalitatea** sustatzea. Horretarako, prebentzioaz arduratzen diren



CC BY-3.0-ES 2012:EJ-GV:Irekia-Eusko Jaurlaritza: Mikel Arrazola

erakundeekin lan egin, tresna erabilgarriak sortu eta arauak eta araubideak aplikatzeko aholkularitza eskainiko dugu.

- **Ezbehar-tasarik handiena duten enpresa eta jardueren** arazoari ekitea. Horretarako, ezbeharren iturriak antzemango dira eta horiei aurreko egiteko neurriak proposatuko dira.
- **Arrisku-mota guztiei** heltzeko proiektuak proposatzea:
 - Segurtasunari buruzko proiektuak, ikerketaren bidez eta laneko bide-istripuen prebentzioaren bidez, prebentzio-interesa duten eta arintzat jotzen diren istripuak aintzat hartuta.
 - Higieneari buruzko proiektuak, tokian tokiko higienearen hobekuntza sustatuta eta arrisku kimikoaren ebaluazioa hobetuta.
 - Ergonomiari buruzko proiektuak, gizarte-eta osasun-arloan esku hartuta.

- Arazo psikosozialei buruzko proiektuak, mota horretako arriskuen EAEko mapa eguneratuta eta azken urteotako bilakaera aztertuta.
- Euskal Autonomia Erkidegoko langileriaren **arriskuekiko esposizio eta kalteez** jakiteko proiektuak sustatzea, esate baterako, Prebentzio Sistemen Gutxieneko Datu Multzoa, laneko historia klinikoaren eredia eta gaixotasun profesionalen susmoak komunikatzeko sistema.
- Prebentzio-arloko **berrikuntza** sustatzea, lanean sortzen diren arrisku eta egoera berriak aztertuta eta ikertuta.
- **Genero ikuspegia** kontuan hartzea eta emakumeen nahiz gizonen arteko berdintasuna bultzatzea laneko segurtasun- eta osasun-arloan.
- **Gizatalde defizitarioei** (pertsona adindunak, ezintasunen bat duten pertsonak, gazteak...) berariazko arreta egitea.
- Arrisku jakin batzuen aurrean esku hartzea, arrisku horien ondorioak dagoeneko ikusten direlako arriskuon



CC BY-3.0-ES 2012:EJ-GV:Irekia-Eusko Jaurlaritza: Mikel Arrazola

eraginpean egon diren pertsonen osasunean, hala nola, **amiantoa, silizea, egur-hautsa eta zarata**.

- 2015-2020 aldiko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategian jasotako **jarraipen-adierazleei** lotutako informazio-sistema sendotzea.
- **Aliatuak** bilatzea eta lankidetzaz bultzatzea Eusko Jaurlaritzako sailekin, herri-administrazioekin eta EAEko erakunde publikoekin, Estatuko administrazioarekin, beste autonomia erkidego batzuekin eta Europako erakundeekin, baterako proiektuak garatu eta bakoitzaren ahaleginei errenta ateratzeko.
- Erakundeak eskaintzen dituen **zerbitzuak** eta kudeaketa hobetzea, Aurrerabide eredia ezarrita.
 - Helburuen eta errendimenduaren betetze-maila neurtzea adierazleak erabilita.
 - Prozesuak karakterizatzea eta prozedurak dokumentatzea.
 - Barruko komunikazioa sustatzea.
 - Genero-ikuspegia txertatzea administrazio-prozeduretan.

d. 2016ko Kudeaketa Planaren egitura

Beheko taulan, Osalaren 2016ko **lan-ildoak** eta ildo horiek landuko direneko esparru eta ardatzak ageri dira.

ARDATZA	JARDUN-EREMUA	LAN-ILDOAK
1. ARDATZA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KULTURA	1.- KONTZIENTZIATZEA ETA SENTIBERATZEA	Komunikazio-estrategia hainbat kanal erabiliz
		Formatu anitzeko zabalkunde-jarduerak: jardunaldiak, tailerrak...
		Norberaren konturako langileak
		Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitatea
		Zabalkundeko materialen eskaintzaren dibertsifikazioa
2.- ERAGILEEN PARTE HARTZEA ETA ELKARLANA	Web eta sare sozialen bidezko elkarreragina	
	Eragileekiko partaidetza-lanabesak	
2. ARDATZA: LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNARI BURUZKO JAKINTZAREN SORRERA ETA ZABALKUNDEA	3.- INFORMAZIOA	Adierazleak
		Laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa bildu, ustiatu, aztertu eta zabaltzea
	4.- IKERKETA	Besteren ardurapeko ikerkuntza-proiektuak
	5.- PRESTAKUNTZA	Lineako prestakuntza eta edukiak
		Prebentzio-sailen prestakuntza, oinarritzak eta berariazkoa
		LAPeko prestakuntza goi-mailako teknikarientzat
	6.- JAKINTZAREN ZABALKUNDEA	Prebentzio-zerbitzuetako eta Osakidetzako osasun-langileen prestakuntza
Aholkularitza lantokietako bisitetan		
Aholkularitza teknikoak		
Kontsulten erantzuna		
3. ARDATZA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA	7.- PREBENTZIO JARDUERAREN KALITATEA	Gidaliburuak, jarraibideak, protokoloak eta gomendioak
		Arriskuen ebaluazioa eta tratamendua
	8.- LANEKO BALDINTZEN HOBEKUNTZA	Prebentzio zerbitzuekiko elkarlana
Lan-ekipoak, gai kimikoak, ergonomiaren inguruko alderdiak eta eragin piskosoziala duten antolaketa-baldintzak		
4. ARDATZA: HERRI ADMINISTRAZIOAK	9.- PREBENTZIOAREN TXERTAKETA KUDEAKETAN	Gizatalde zehatzak: norberaren konturako lana, adindunen lana...
		Arrisku handieneko sektoreak eta enpresak
		Aholkularitza eta laguntza teknikoak lehen sektorearentzat
	10.- ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA	Laguntza enpresa txiki eta ertainentzat
		Kordinazioa erantzukizun partekatuko eremuetan
	11.- ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA	Kontrol-jarduerak
		LAPen garapena administrazioetan
12.- OSALANEN ZERBITZUAK ETA PROZESUAK	Beste administrazio eta erakundeekiko lankidetzak eta baterako proiektuen garapena	
	Agirien kudeaketa eta artxiboa	
	Herritarrentzako arreta	
	Aurrekontuaren jarraipena	
	Aurrerabide ereduaren ezarpena: prozesuak eta prozedurak	
Barruko komunikazioa		
Berdintasuna		



2

ANTOLAKETA ETA BALIABIDEAK


Osalanen Kudeaketa Planaren diseinua eta garapena erakundearen osatzen duten pertsona guztien ardura da; hala, pertsona guztiak planaren diseinu eta garapenaz arduratuko dira nor bere hierarkia maila eta jardun-eremuaren arabera.

Osalan erakundearen egitura eta jarduerari buruzko araudiaren esparruan (191/2002 Dekretua), aipatutako zereginak hiru zuzendariordetza eta haietan aritzen diren langileen artean banatzen dira, esan bezala, bakoitzaren izaeraren eta jardun-eremuaren arabera.

a. Kudeaketa Planaren diseinua

Osalanen 2016ko Kudeaketa Plana diseinatzerakoan, AURRERABIDE deritzon kudeaketa publiko aurreratu-ereduan jasotako jarraibideei jaramon egin diegu. Esan beharra dago erakundeak ez dauka eredia % 100ean ezarrita; bai, ordea, barneratuta.

Horrela, egoeraren azterketan eta aurreko urteko emaitzetan oinarrituta –aukerak eta mehatxuak identifikatu dira– eta Osalanen **IKUSPEGIA** eta **XEDEA** aintzat hartuta, helburu estrategikoak eta jardun-eremuak berrikusi dira eta plan berriaren egitura landu da.



OSALANEN XEDEA

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-agintaritzak ezartzen dituen laneko segurtasun- eta osasun-politikak kudeatzea, laneko inguruneari datxezkion arriskuen zergatien sorburua saihestu edo arintzeko helburuz.

- Segurtasuna eta osasuna txertatzea ondo egindako lanaren eta enpresaren bikaintasunaren kulturaren txertatzea, euskal gizartearen ikusmoldeari jarraiki, laneko arriskuen prebentzioaren inguruko informazioaren, prestakuntzaren eta jakintzaren bidez.
- Prebentzioan parte hartzen duten enpresaburu, langile eta gainerako eragileei erraztasunak ematea laneko arriskuen jarduerak egin ditzaten EAEko enpresetan eta herri-administrazioetan. Horretarako, laguntza eta aholkularitza teknikoa emango zaie.
- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia bete dadin bultzatzea. Horretarako, laguntza emango zaie prebentzioan aritzen diren enpresa eta antolakundeei zailtasunak konpontzen eta, aldi berean, arau-hauste larriak eta/edo behin eta berriro egiten direnak begiratu eta zehatu egingo dira.
- Administrazio eta herri-erakundeekin koordinatu eta elkarlanean aritzea langileen segurtasuna eta osasuna hobetzea helburu duten proiektu eta jarduketa baliagarrietan.
- Laneko arriskuen prebentzioan parte hartzen duten eragileekin lankidetzan jardutea, eragile guztien eta gizarte osoaren parte-hartzea sustatuta laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko.

Aurrekoa garatze aldera, Osalanen Kudeaketa Plana **ekintza** ugariz osatuta dago. Ekintza horiek guztiak aurreko atalean ageri diren ardatz eta jardun-eremuetan jasotzen dira. Ekintza gehienak erakundeko langileen ekimenez sortutakoak dira, aditu bikainak baitira arloko beharrianetan eta lehentasunezko jardun-eremuetan.

Ekintzak diseinu jakin bati jarraiki zehaztu dira. Diseinu horretan, ekintzaren helburua, irismena, produktua, eginkizunak, kronograma, beharrezko baliabideak eta jarraipen-adierazleak jasotzen dira.

Erakundearen Zuzendaritza Batzordeak onartzen ditu ekintzak, ezarritako baldintzetan.

Aipatutako diseinua euskarri informatiko bakun batean jasotzen da; hala, euskarria baliagarria da ekintzaren garapena monitorizatzeko eta emaitzen jarraipena egiteko. Osalanen jarduera guztiak tresna horretan dokumentatzen dira eta, horregatik, informazio-etorbide nagusia da jarraipen-txostenak eta jardueren oroitza-txostena egiteko.



b. Kudeaketa Planaren garapena


- Erakundea osatzen duten sail eta unitateetako langileek gauzatu behar dituzte Kudeaketa Planean jasotzen diren ekintzak. Hala, ekintza bakoitza garatzeko ardura esleitzen zaio horretarako gaitasun edo ahalmen handiena duenari prestakuntza, eskarmentua edo erakundearen barruko lanpostu edo maila kontuan hartuta.
- Lan-ildo batzuk garatzeko, **berariazko lantaldeak** erabiliko dira. Lantaldeak diziplina anitzeko langileez osatuta daude eta ordezkaritza dute hiru lurraldeetan. Horien adibide ditugu, besteak beste, arrisku psikosozialei, ergonomiari eta genero-ikuspegia txertatzeari atxikitako arloak.
- Osalan erakundea sortu zuen Legeak eta erakundearen egitura eta jarduerari buruzko Araudiak eratzikitako eginkizunei dagokienez, esan behar da, gehienbat, sektoreko unitateek, laneko osasuneko unitateak, zerbitzu juridikoek eta administrazio eta giza baliabideen arloak gauzatzen dituztela.

Erakundearen eskumen-esparruari doazkion jarduera horiez gain, ekitaldian aurreikusitako proiektuak garatzen ditu Osalanek. Hori dela eta, erakundeak malgutasun handia eta kudeaketa-ahalmen izugarria izan behar du, "eguneroko" jarduera nekez aurreikus daitezkeen gorabeheren eraginpekoa delako. Istripu, osasun-alerta, agintarien eskaera edo oihartzun handiko unean uneko prebentzio-auziak direla eta, erakundeak berehala eta ekimen biziz jardun behar du. Jakina denez, baliabideen zati bat halakoetan baliatu behar duenez gero, beste ekimen batzuetako egutegia doitu behar izaten du.



C. Zuzkitutako baliabideak

Osalanek 2016an bete behar duen lan eskergari ekiteko, erakundeak **176 profesional** osatutako plantilla dauka. Profesional horiek guztiak zerbitzu zentraletan eta lurraldeko zentroetan aritzen dira, ondoko organigramari jarraiki:



Plana diseinatzeko orduan, arretaz aztertu da langileen banaketa arloen barruan, proiektuei ekiterakoan, plana zuzen eta eraz dimentsionatzeko, betiere erakundearen ahalmenaren arabera, kanpoko eskariatik datorren lana ahaztu gabe.

Ahalmen horri eustea lehentasunezkoa da Osalanentzat; horren haritik, ahalik eta azkarren betetzen dira hainbat arrazoi direla tarteko hutsik geratzen diren lanpostuak.

Erakundeak 2016an eskura dauzkan **baliabide ekonomikoei** gagozkiela, ekitaldian 13.901.000 euroko aurrekontua onartu da. Aurrekontu horren bidez, batetik, langileria- eta jardunbide-gastuak ordainduko dira, eta bestetik, agiri honetan aurkeztu dugun Kudeaketa Planean jasotako proiektuak eta ekimenak finantzatuko dira.

3

KUDEAKETA PLANAREN JARRAIPENA

Osalanen Kudeaketa Plana osatzen duten ekintzen berrikuspena hiru zuzendariordeen ardura da, eta horien jarraipena egiten dute, ekintzen gaia zein den. Hala ere, zeharkako proiektuen ardura **Zuzendaritza Batzordearena** da.

Planaren jarraipena etengabea da. Bestalde, egindako aurrerapenak kudeaketa tresnan jasotzen dira eta erakundeko arduradun guztiek ikus ditzakete. Izan ere, arduradunek tresna erabiltzen dute zereginen egoera jasotzeko eta kronogramen betetze-mailaren berri emateko eta, hala badagokio, jardueren ondoriozko txostenak edo bestelako fitxategiak eransten dituzte.

Arduradunek eta Zuzendaritza Batzordeak batzarrak egiten dituzte aldiro eta, batzar horietan, ekintzen uneko egoera aztertzen da. Horrez gain, aurreikusitakoa bezain azkar aurrera ez doazen proiektuak jorratzen dira bereziki, horiek bultzatu eta aurrera egiteko oztupoak kentzeko.

Bilkura horietan, helburuen betetze-maila eta ekintzen errendimendua neurtzeko adierazleak berrikusten dira. Adierazleak **aginte-taula** osatzen dute eta, horri esker, erakundearen zuzendaritzak aurrerapenak ebaluatu eta erabaki egokiak har ditzake.

a. Jardueren oroitza-txostena

Urteko lehen hiruhilekoan, Osalanek aurreko ekitaldian egindako jarduera guztien gaineko informazioa biltzen du eta bildutako datuak baliatuz jardueren oroitza-txostena prestatzen du. Txostenaz gain, gauzatutako ekimenen eta ekintzek lan-arloetan izan duten eraginaren inguruko **balantzea** taxutzen du erakundeak.

Oroitza-txostena erakundearen Batzar Nagusiari helarazten zaio, onar dezan. Dena dela, agiri horren helburu nagusia da interesdun talde guztiei eta herritarrei kontuak ematea –gardentasun osoz– Osalanek burututako ekintzei eta haietan inbertituriko baliabideei buruz.

Hala eta guztiz ere, agiri honetan bertan adierazi den legez, txostenak beste helburu bat dauka, honako hau, hain zuzen ere: laneko arriskuen prebentzioaren uneko egoeraren diagnostikoa izatea eta garatutako politika eta ekintzen emaitzen ispilua izatea, hurrengo urteko Kudeaketa Plana diseinatzeko helburuz.



b. Gizarte-eragileen parte-hartzea

Osalanen Kudeaketa Planaren diseinu, garapen, jarraipen eta ebaluazioari dagokienez, gizarte-eragileen parte-hartzea **Jarraipen Batzordearen** bidez bideratzen da. Batzorde hori xede horretarako sortu da berariaz Osalanen Batzar Nagusiaren baitan.

Batzorde horren bileretan –lau hilerik behin–, gizarte-eragileen ekarpenak jasotzen dira, egin beharreko ekimenak direla, jorratu beharreko arazoak direla. Beste alde batetik, Osalanek elkarlana eta laguntza eskatzen die jarduketa jakin batzuetan.



Batzordeak planean jasotako ekintza guztien jarraipena egiten da, aurrerapena eta emaitzak balioesten dira eta, azkenik, zuzentze-neurriak proposatzen dira.



4

OSALANEN 2016KO KUDEAKETA PLANAK
JASOTZEN DITUEN EKINTZAK

1. ARDATZA	LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN (LAP) KULTURA
JARDUN EREMUA	2016KO EKINTZAK
<p style="font-size: 2em; font-weight: bold; text-align: center;">01</p> <p style="text-align: center;">KONTZIENTZIATZEA ETA SENTIBERATZEA</p>	<p>1.1.- Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko gaiak areago jorratzea hedabideetan, LAPen kultura zabaldu eta sustatzeko helburuak erabiliz.</p>
	<p>1.2.- Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko mezuak hedatzea enpresaburu, sindikatu, elkarte, erakunde espezializatu eta abarrekiko ekitaldi eta bilguneetan.</p>
	<p>1.3.- LAPen inguruko jardunbide onak dituzten enpresa eta administrazioen lana aitortzeko ekintzak sustatzea.</p>
	<p>1.4.- LAP bultzatzea norberaren konturako langileen artean: UPTA antolakundearekin sinatutako lankidetzaz garatzea eta Garraioaren sektorearentzako gidaliburua argitaratzea.</p>
	<p>1.5.-Erakundearen OSOA fitxak (Osalanen Segurtasun eta Osasun Aholkuak / Gomendioak) prestatzea webgunean argitaratzeko xedez. Fitxetan, laneko segurtasun eta osasunaren inguruko aholku eta gomendio laburrak eta erraz erabiltzekoak agertuko dira, alderdi hauek guztiak jorratuta: prebentzioaren kudeaketa, segurtasuna, higiena, ergonomia, psikosozioologia eta laneko medikuntza.</p>
	<p>1.6.- Osalanen Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko VI. Ikastaroa antolatzea, EHUKo udako unibertsitateak eskaintzen dituen ikastaroen baitan. Ikastaroak psikosozioologiaren gaia jorratuko du.</p>
	<p>1.7.- Laneko arriskuaren prebentzioaren inguruko kultura sustatzea Lanbide Heziketako eta unibertsitateko ikasleen artean. Horretarako:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Osalanek bisitak egingo dizkie aipatutako ikasleei LAPen inguruko informazioa eta dokumentazioa jaso ditzaten. • Osalanek bisitak egingo ditu Euskadiko ikastegietan eta ADI proiektua garatzen lagunduko du.
	<p>1.8.- Osalanen prestakuntza eta zabalkunde eskaintza osoa biltzen duen katalogoa prestatzea eta argitaratzea.</p>
	<p>1.9.- LAP sustatzea Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gaztepreben finkatzea. • Gabonetako Haur Parkean egotea. • Esperientziak azaltzeko jardunaldia antolatzea. • Proiektu bat pilotatzea hezkuntza itunduarekin.
	<p>1.10.- Laneko segurtasun eta osasunari buruzko argitalpenak prestatu eta zabaltzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Osalanen argitalpenen katalogoa berrargitaratzea.
<p>1.11.- Genero-ikuspegia LAPen txertatzeko materialak eta zabalkunde-jarduerak garatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • LAPen eta generoaren inguruko atala argitaratzea Osalanen webgunean. • Laneko segurtasun eta osasunari buruzko jardunaldia antolatzea, genero-ikuspegia jorratuta. 	

	<p>1.12.- Arrisku psikosozialen inguruko materialak eta zabalkunde/informazio jarduerak garatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • PSIKOPREBEN atalari eustea Osalanen webgunean. Horretarako, materialak eta zabalkunde/informazio edukiak garatuko dira. • Gaia udako ikastaroan jorratzeaz gain, arrisku psikosozialei buruzko jardunaldia antolatzea.
	<p>1.13.- Materialak eta zabalkunde-jarduerak garatzea lehen sektorearen arloetan.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jardunaldi bat antolatzea LAPen gaineko jakintza sektore horretan hedatzeko. • Itsaso eta arrantzari buruzko ikastaroaren beste edizio bat antolatzea.
	<p>1.14.- Lan-ingurunekeo adikzioei buruzko sentiberatzea landu eta horiek ekiditeko material didaktikoa prestatzea eta zabaltzea.</p>
	<p>1.15.- Euskararen erabilera sustatzea LAPen inguruko jardueretan.</p>
	<p>1.16.- Laneko segurtasun eta osasunaren eta LAPen inguruko bideo-lehiaketa antolatzea.</p>
	<p>2.1.- Osalanen Internet-eko presentzia areagotzea.</p>
<p>02 ERAGILEEN PARTE HARTZEA ETA ELKARLANA</p> 	<p>2.2.- Osalanen kudeaketa-planaren jarraipena egitea gizarte-eragileekin batera, ondore horretarako sortu den Kontseilu Nagusiaren barruko batzorde bereziaren lau hilerik behingo bileren bidez, eta eragileen ekarpenak jasotzea.</p>
	<p>2.3.- Enpresetan egiten diren LAPen inguruko jarduketan kalitatea hobetzea, kanpoko prebentzio-zerbitzuetako arduradunen elkarlanari esker.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tailerrak antolatzea EAEko hiru lurraldeetan, prestakuntza landu, eta honako alderdi hauei guztiei buruzko gomendioak emateko helburuz: arriskuen ebaluazioa, amatasunaren babes eta laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen ikerketa.
	<p>2.4.-Elkarlaneko tresnak garatzea arrisku psikosozialei lotutako auziei erantzuteko.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Prebentzio-ordezkarari prestakuntza ematea arrisku psikosozialen prebentzioari buruz.
	<p>2.5.- Itsas arrantzako sektorean, laneko segurtasunaren euskal KLUSTERRA sortzeko aukera aztertzea, laneko arriskuen prebentzioan parte hartzen duten eragile guztiak horretan batuta.</p>
	<p>2.6.- Laneko segurtasun eta osasunaren eta LAPen inguruko bideo-lehiaketa antolatzea.</p>

2. ARDATZA

LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNARI BURUZKO JAKINTZA SORTZEA ETA ZABALTZEA

JARDUN EREMUA

EKINTZAK

03

INFORMAZIOA

- 3.1.-** AURRERABIDE proiektuaren eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren **jarraipen-adierazleen** multzoa diseinatu eta eratztea. Beste alde batetik, Osalanen kudeaketa planetan jasota dauden prozesu eta ekintzen adierazleak egituratzea, LAPen egoeraz jakin eta jarduketak zehaztu ahal izateko xedez.
- Datuak eta adierazleak aztertzea eta EAEko arriskuekiko esposizio eta osasunari eragindako kalteei buruzko txostena prestatzea, **genero-ikuspegia** bertan landuta.
- 3.2.-** Laneko istripuen zergatuei buruzko diagnostikoaren oinarriak finkatzea **nekazaritza eta basogintzako sektorean**.
- 3.3.-** 2015eko datuak baliatuz, **errepide bidezko joan-etorrietan** gertatzen diren istripuen EAEko egoerari buruzko txostena eguneratzea eta emaitzen zabalkundea egitea.
- 3.4.- Gaixotasun Profesionalen Susmoen** gaineko sistema sendotzea, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-zerbitzuek eta prebentzio-zerbitzuek laneko jatorria omen duten gaixotasunen berri emateko.
- Prebentzio-zerbitzuentzako zabalkunde-materialak prestatzea eta, horietan, berariaz azaltzea **zer-nolako zehapenak ezar daitezkeen** gaixotasun profesionalaren susmoaren berri jakinarazteko betebeharra urratuz gero.
- 3.5.- Laneko istripu hilgarri** guztiak, istripu oso larriak, larriak eta biktima anitzekoak ikertzea, bai eta arintzat jotakoak ere, prebentzioko interesa aitortzen bazaie.
- Ikertutako istripuen jarraipena egitea, gomendatu diren prebentzio-neurriak hartu direla egiaztatuta.
- 3.6.-** Euskal Autonomia Erkidegoan gertatzen diren **gaixotasun profesionalak**, laneko jatorria izan dezaketen gaixotasunak eta Legionella kasuak ikertzea.
- Lanari lotutako kalteen **zaintza epidemiologikoa** egitea: laneko istripuak, gaixotasun profesionalak, gaixotasun profesionalen susmoak, gaixotasun-agerraldiak, gaixotasunen elkartzeak (klusterra).
- 3.7.- Laneko istripuen zaintza epidemiologikoa** gauzatzeko metodologia aztertzea.
- 3.8.-** EAEko **istripu-tasa eta gaixotasun profesionaleri buruzko urteko txostenak** taxutzea eta, horietan, genero-ikuspegi, langileriaren zahartze eta azpikontratazioaren inguruko aldagaiak jasotzea.
- 3.9.- Egungo ezbehar-tasaren eredia** aztertu eta identifikatzeko urte anitzeko proiektua garatzea, ikerketa eskudun baten bitartez.
- 3.10.-Laneko historia klinikoa** ezartzeko araudia garatzea, langileak baliatu ahal izateko lan-bizitzan zehar eta lan-bizitza amaitu ondoren.
- 3.11.-**Prebentzio-zerbitzuen **gutxieneko datu-multzoan** (GDM) oinarritutako laneko osasunari buruzko informazio-sistema ezartzea.
- 3.12.-**Euskal Autonomia Erkidegoko prebentzio-zerbitzuen eta auditoretza-erakunde espezializatuen **osasun-zerbitzuen eta osasun-jarduketari buruzko fitxategia** garatzea eta ezartzea.

2. ARDATZA

LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNARI BURUZKO JAKINTZA SORTZEA ETA ZABALTZEA

JARDUN EREMUA

EKINTZAK

04
IKERKETA

4.1.- Diru-laguntzen lerro bat baliatuz, laneko segurtasun- eta osasun-arloko ikerketa-proiektuak finantzatzea.

Proiektuak garatu eta jakintza hedatzea **lehen sektorean**, AZTI erakundearekin elkarlanean.

4.2.- Laneko arriskuen prebentzioko gidaliburua prestatzea Euskal Autonomia Erkidegoko **arrantza-portuetan** erabiltzeko.

4.3.- Ergonomiaren hobekuntza sustatzea **arrantzako produktuak eraldatzeko jardueretan**. VIPROS tresna erabiltzeko proba pilotua.

4.4.- Nanopartikulekiko esposizioak sorraz ditzakeen arriskuei buruzko jakintza sustatzea, ebidentzia zientifiko eguneratuenaren ikuspegian funtsaturik.

4.5.- Laneko minbiziaren zaintza epidemiologikoa garatzeko estrategia ezartzea, bereziki, mesoteliomaren, sinu paranasalen minbiziaren eta angiosarkomaren zaintza.

4.6.-Laneko denborek eta **txandek** arrisku psikosozialetan duten eragina aztertzea.

2. ARDATZA

LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNARI BURUZKO JAKINTZA SORTZEA ETA ZABALTZEA

JARDUN EREMUA

EKINTZAK

05

PRESTAKUNTZA

5.1.- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko **e-learning** prestakuntza eskaintzea, Moodle plataformaren "open source" formatuan.

Laneko osasun-arloan aritzen diren **osasun-langileen prestakuntza** sustatzea

5.2.- **Prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileentzako prestakuntza** ematea eta sustatzea, diseinatutako planari jarraiki eta Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearen eta Bilboko Medikuntza Zientzien Akademiarekin elkarlanean.

5.3.- Prestakuntza ematea **Osakidetzako osasun-langileei**.

5.4.- Laguntza ematea Euskadiko Laneko Medikuntzako Irakaskuntza Unitateko **MIR R4** kidegoaren prestakuntza, Osalaneko txandaketaren bitartez (Osakidetzaren Euskadiko Laneko Medikuntzako Irakaskuntza Unitatearekin sinatutako hitzarmenari esker).

5.5.- **Diru-laguntzen** lerro bat baliatuz, laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza- eta zabalkunde-jarduerak finantzatzea.

5.6.- **Prebentzio-ordezkarien** prestakuntza, oinarritzkoa nahiz birziklatzekoa, kudeatzea.

5.7.- **Laneko istripuak ikertzeko ikastaroa** diseinatzea eta ikastaroko materialak garatzea.

5.8.- Unibertsitateko erakundeekin elkarlanean aritzea LAPen inguruko **goi-mailako prestakuntzan**.

- EHUrekiko lankidetzak garatzea.



2. ARDATZA

LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNARI BURUZKO JAKINTZA SORTZEA ETA ZABALTZEA

JARDUN EREMUA

EKINTZAK

06

JAKINTZAREN
ZABALKUNDEA

6.1.- Prebentzioa sustatzea eraikuntzaren sektorean jarduten duten norberaren konturako langileen eta enpresa txiki eta ertainetako langileen artean, mantentze- eta birgaitze-obretarako (fatxadak eta estalkiak) bisiten kanpaina baten bidez, honakoak nabarmenduta:

- Segurtasuna **aldamioen** egituretan.
- Babeseko bitartekoak **estalkietako lanetan**.
- **Prebentzio-baliabideen** presentzia.

6.2.- **Formaldehidoaren** agerpena aztertzea galdategietan.

6.3.- LAPen inguruko jakintza sustatzea **prestakuntza- eta zabalkunde-jardueren bidez** (ikastaroak, tailerrak, jardunaldiak...), laneko segurtasun- eta osasun-arloko alderdi jakingarriak jorratuta (ikusitako ekitaldien egitaraua taularen amaieran).

6.4.- **Jasotze-makinak erabiltzeko** jardunbide egokiei buruzko materiala aurkeztea eta zabaltzea.

6.5.- EAEko Arrisku psikosozialen mapa berrikusi eta eguneratzea.

6.6.- **Irekiera** jakinarazten duten enpresen lantokietako LAP ikuskatzea.

6.7.- **Osasuna sustatzeko programak** lantzea eta garatzea.

6.8.- **Jabekideen erkidegoak** kontzientziatzea LAPen arloan dituzten betebeharren inguruan.

6.9.- Enpresek, langileek, langileen ordezkariak eta prebentzio-erakundeek egiten dituzten **aholkularitza teknikoko** eskariei erantzutea, betiere Osalaren eskumenen barruan.

3. ARDATZA

LAPen KUDEAKETA

JARDUN EREMUA

EKINTZAK

07

PREBENTZIO
JARDUERAREN
KALITATEA

7.1.- Trenbide gainegiturak gauzatzeko lanetan, laneko arriskuen prebentzioari buruzko gidaliburu teknikoa prestatzea:

- Bide berriak egiteko eta/edo bideak eraberritzeko lanak (1. fasea – 2016).
- Mantentze- eta/edo zaintze-lanak (2. fasea – 2017).

7.2.- Garaierako lanen segurtasunari buruzko gidaliburua prestatzea.

7.3.- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko baldintza teknikoen agiria prestatzea, eraikuntzako lanetan erabiltzeko.

7.4.- Prebentzio-eduki teknikoei buruzko informazioaren **zabalkundea** erraztea espezializatu gabeko langileentzat eta talde ahulენტzat.

7.5.- Enpresa handien jardueren koordinazioaren egoera aztertzea. Esperientziak eta hobetzeko aukerak trukatzeta.

7.6.- Irismenaren eta ebidentzien aurretzako azterketa egitea **datuak bistartzeko pantailen eraginpean** lan egiten duten langileen osasuna zaintzeko protokoloa berrikusteko xedez.

7.7.- Amiantoaren eraginpean egon omen diren langileen fitxategia kudeatzea eta eguneratzea, **lan egin osteko osasunaren zaintzaren** ondorioetarako.

7.8.- Zarataren eraginpean lan egiten duten langileen osasuna zaintzeko protokoloa berrikustea.

7.9.- EAEko **arritsu kimikoaren** egoeraren diagnostikoan sakontzea.

- Gai kimikoekiko esposizioaren ziozko **arritsuen ebaluazioaren kalitatea** sustatzea EAEko sektoreetako enpresetan.
- Arrisku kimikoaren egoeraren diagnostikoan sakontzea EAEko **tindategien** sektorean. Kanpaina amaitu eta ondorioak ateratzea.

7.10.- Enpresetako **arritsu psikosozialen** egoerari buruzko jakintzan sakontzea. Horretarako, mota horretako arriskuen prebentzioaren azterketa txertatuko Osalanean jarduketan teknikoetan.

7.11.- Langileen **silizearekiko esposizioa** dela eta, jarduketan integralari ekitea.

- Prebentzio-zerbitzuetako **medikuntza-zerbitzuentzat** proposatutako hobekuntzak berrikustea.
- Silizearekiko esposizioa duten langileen **osasuna zaintzeko protokoloa** berrikustea, meatzaritzaz kanpoko enpresak kontuan hartuta, eta lan egin osteko osasuna zaintzeko programa proposatuta.
- **Galdategietan**, aireko silizearen kantitatea neurtzeko kanpaina garatzea 3 lurralde historikoetan eta emaitzak zabaltzea.

7.12.- Plagizidak erabiltzeko gidaliburua prestatzea eta zabaltzea.

3. ARDATZA	LAPen KUDEAKETA
JARDUN EREMUA	EKINTZAK
